

Lekuzko adposizioak hizpide, etxetik fakultatera bidean

MASTER AMAIERAKO LANA

EGILEA: Etxeberria Gonzalez, Jürgen

MASTERRA: Hizkuntzalaritza Teoriko eta Esperimentala Masterra

ZUZENDARIA: Fernández Fernández, Beatriz

SAILA: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

2020–2021 ikasturtea – Iraileko deialdia

Aurkibidea

Laburpena	IV
Laburdura zerrenda	VI
1. Sarrera: lehen hurbilketa lekuzko adposizioetara	1
1.1. Lekuzko adposizioak euskal gramatiketan: Hualde (2003a) eta de Rijk (2008)	3
1.2. Euskal adposizioak eta Ardatz Zatiak Svenoniusen (2004) analisia oinarri	4
2. Lekuzko adposizioak Nanosintaxian	7
2.1. Nanosintaxiaren eremu teorikoa eta oinarrizko kontzeptuak	7
2.2. Pantchevaren (2011) Bide Sintagmaren dekonposizioa euskaraz	8
2.3. MugaS eta EskalaS: euskarazko terminatiboaren eta direkzionalaren analisia	12
2.4. ZeharS: euskal ablatiboaren eta prosekutiboaren analisirako iradokizuna	15
2.5. Pantchevaren (2011) hipotesia hedatzen	17
2.5.1. Mendebaldeko <i>-ra arte</i> egitura terminatiboaren analisia	17
2.5.2. Ardatz Zati bidezko prosekutiboa: <i>-an zehar</i> eta <i>-tik barrena</i>	19
2.5.3. Lekuzko adposizio bizidunen analisia Etxepare (2013) oinarri (<i>-ga-n-X</i>)	20
2.6. Tarteko ondorioak	22
3. Lekuzko adposizioak sintaxian: argumentu ala adjuntu?	24
3.1. Aurrekariak	24
3.1.1. Baker (2003): adposizioak adjuntu	25
3.1.2. Huddleston eta Pullum (2002): aditzak zehazten du funtzio sintaktikoa	27
3.2. Lekuzko adposizioak argumentu egituran	30
3.2.1. Elordieta (2003): adberbioak eta postposizioak sintaxian	31
3.2.2. Helburuzko adposizioa eta datibo onuraduna: sorburu bera?	31
3.3. Lekuzko adposizioen analisia sintaxian	35
3.4. Tarteko ondorioak	38
4. Helburuaren eta Iturburuaren arteko asimetria	39
4.1. Asimetriaren aldeko oinarri tipologikoak	39
4.1.1. Nam (2004, 2012): mugimendu aditzak eta adposizioen argumentu izaera	39
4.1.2. Vietri (2020): mugimendu aditzak eta Helburu-Iturburu asimetria	43
4.2. Helburuaren eta Iturburuaren asimetria sintaktikoaren aurkako ebidentzia	44
4.2.1. Gehrke (2007): espazio harremanak eratortzeko estrategiak	44
4.3. Lan tipologikoetako tarteko ondorioak	46
4.4. Lan esperimentalak	46

4.4.1. Landau eta Lakusta (2005, 2010)	46
4.5. Lan esperimentaletako tarteko ondorioak	49
5. Atal esperimentalak: Helburu-Iturburu asimetria aztergai	49
5.1. Aurrekariak	50
5.2. Hasierako hipotesiak	50
5.3. Esperimentuaren diseinua eta metodologia	51
5.3.1. Parte hartzaileak	51
5.3.2. Materialak	52
5.3.3. Prozedura	54
5.3.4. Datuen analisisa	54
5.4. Emaitzak	55
5.5. Esperimentuaren ondorioak	57
6. Eztabaida eta gerora ikertu beharrekoak	57
7. Ondorioak	59
Aipamenak	63
I Eranskina: esperimentuan erabilitako materialak	66
II Eranskina: esperimentuko datu estatistikoak	68

Laburpena

MAL honek lekuzko adposizioak aztertzea du helburu eta hiru ardatz nagusitan oinarritzen da. Lehenik eta behin, lekuzko adposizioen hierarkia aztertzeko, Nanosintaxiari dagokion azterbidea jorratzen dut (Svenonius 2004) eta euskararako, Etxepare (2013) eta Berro (2015) ditut oinarri.

Nire proposamenean, Pantchevaren (2011) *Bide Sintagmaren dekonposizio* hipotesia, espazio harremanak zehazten dituzten euskarazko buru sintaktiko gehiagotara zabaltzen dut. Honela, oinarrizko inesibo (Lekua), adlatibo (Helburua) eta ablatiboa (Iturburua) azaltzeaz gain, MugaS, EskalaS eta ZeharS baliatuz, euskarazko muga adlatiboa, hurbiltze adlatiboa eta prosekutibo historikoa aztertzen ditut, hurrenez hurren. Bestalde, *-ra arte* eta *non zehar* egituretan, *arte* eta *zehar* Ardatz Zatiek Muga eta Zehar buruak lexikalizatzen dituzte, hurrenez hurren.

Bigarrenik, syntaxira begira, lekuzko adposizioen estatus sintaktikoaz eztabaidatzen dut, izan ere, euskal gramatikan, argumentu eta adjuntuen arteko aurkakotasuna zehazteko irizpide nagusia aditz komunztadura izan da. Hala, ergatibo, datibo eta absolutibo kasuez markatzen ez diren sintagmak adjuntutzat hartu dira, tartean lekuzko adposizioak eurak.

Nire hipotesiaren arabera, aldiz, lekuzko adposizio sintagmetako batzuek argumentu estatusa dute, komunztadura gorabehera, mugimendu eta transferentzia aditzen oinarrizko espazio harremanen informazioa zehazten baitute Lanean proposatzen dudanez, argumentu diren adposizioak aditz sintagmaren osagarri gunean sortzen dira perpaus iragangaitzetan (esaterako, *Josu *(etxera) doa* ezgramatikala da adposizioa isiltzean). Aldiz, *ekarri* eta *eraman* bezalako aditz iragankorretan, aditz sintagmaren espezifikatzaile gunean sortzen dira, absolutiboaz eta datiboaz haragoko argumentuak baitira –esaterako, *Josuk (etxera) oparia darama* gramatikala da–. Bestalde, espazio harremanen halako informaziorik zehazten ez duten postposizioak adjuntu hutsak direla deritzat eta beste aditz sintagma oskol baten espezifikatzaile gunean sortzen direla aldarrikatzen dut.

Beste alde batetik, perpaus iragankorretan, Helburu eta Iturburu adposizioek, absolutiboarekiko hurrenkera asimetrikoa dutela erakusten dut. Dena den, asimetria

horrek ez du zerikusirik biek aditzarekiko duten estatus sintaktikoarekin, aditzak Helburua lehenesteko duen joerarekin baizik.

Hirugarren eta azkenik, Iturburuaren eta Helburuaren arteko asimetriaren gogoeta teorikoari oinarri esperimentalala ere ematen diot, IbexFarm plataforman prestatu dudana esperimendu bati esker. Bertan, 28 parte hartzailek *ekarri* eta *eraman* gisako mugimendu aditz iragankorren perpaus bikoteak irakurri eta [Gaia-Adposizioa] eta [Adposizioa-Gaia] hurrenkeretatik bat lehenetsi behar izan dute. Bikote batzuetan, Helburuzko adposizioak aurkeztu zaizkie, beste batzuetan Iturburuzkoak. Emaitez erakusten dutenez, Iturburuaren eta Helburuaren hautuek asimetria berresten dute, Helburua Gaiaren ondotik agertzen baita maiztasun handiarekin, eta ez, ordea, Iturburua.

Laburdura zerrenda

Hauek dira lanean erabili diren laburdurak:

3 = 3. pertsona

A = aditza

ABL = ablatiboa

ADL = adlatiboa

ABS = absolutiboa

ADB = adberbioa

ADBS = adberbio sintagma

ADJ = adjektiboa

ADJS = adjektibo sintagma

ADL = adlatiboa

AM = azpiko muga

AS = aditz sintagma

BT = aspektu burutua

BTGB = aspektu burutugabea

DAT = datiboa

DET = determinatzailea

DS = determinatzaile sintagma

ERG = ergatiboa

FEM = femeninoa

GEN = genitiboa

GM= goiko muga

HELB = helburua (rola/adlatiboa)

INE = inesiboa

INFL = inflexioa

INFLS = inflexio sintagma

IRGN = iragana

IS = Izen sintagma

ITUR = iturburua (rola/ablatiboa)

KONP = konplementatzailea

LIT = itzulpen literala

LOK = lokatiboa

MASK = maskulinoa

NOM = nominatiboa

P = adposizioa

PL = plurala

PREP = preposizioa

PS = adposizio sintagma

Q1= 1. kuartila

Q3= 3. kuartila

TERM = terminatiboa/muga

‘Kakotx soilen’ artean adierazi da jatorrizko hizkuntzatik euskarara egindako itzulpena.

Azpimarra egitura jakin bat nabarmentzeko erabili da.

1. Sarrera: lehen hurbilketa lekuzko adposizioetara

Lekuzko adposizioak perpauseko elementuen arteko espazio-harremanak adierazten dituzten osagaiak dira. Esan beharra dago, hala ere, adposizio kategoriaren inguruan ez dagoela erabateko adostasunik, adituak ez baitira ados jartzen kategoria honek barnebiltzen dituen osagaiak zein diren zehazterakoan, ez eta bete ditzakeen funtzioak finkatzerakoan. Euskaraz esaterako, postposizioak dira nagusi, baina luzaz multzo berean sailkatu izan dira itxuraz ezberdinak diren aleak, hala nola, *-tik* eta *behe*, bien arteko aldea behar den bezala azaldu gabe.

Adposizio kategoriako osagaiak zehazterakoan adostasun eza nagusitzen da. Horri dagokionez, adituak ez datoz bat adposizioek syntaxian duten funtzioa zehazterakoan. Lekuzko adposizioek, hots, inesibo, ablatibo, adlatibo eta abarrek markatzen dituzten sintagmek ez dute aditz komunztadurarik eragiten, eta horregatik ez dira argumentutzat hartu izan, aditzaren adjuntutzat baino. Adposizio hauek adierazten dituzten rol tematikoak, hala nola, lokatiboa, helburu bizigabea, eta abar, itxuraz, argumentuetatik aparte gelditzen dira. Hala ere, kokapena zehazten duten aditzetan eta mugimenduzko aditzetan, sintagma adposiziodun hauen bitartez adierazten da espazio aldaketak ulertzeko funtsezkoa den informazio gehigarria eta, hortaz, aditzaren osagarri gisara jokatzeko dute, perpaus iragangaitzetan bederen.

Proposamen ugari egin dira adposizio kategoria definitzeko, adposizioak sailkatzeko eta adposizioek syntaxian duten funtzioa zehazteko. Aztergai hauek argitzeko eta neure ikuspuntua aurkeztu ahal izateko, hiru atal nagusitan antolatu dut lan hau. Lanaren lehendabiziko atalean (2. atala), lekuzko adposizioak sailkatu eta aztertzeko lehendabiziko proposamena aurkeztuko dut. Atal honetan, Nanosintaxia izango da oinarri dudan eremu teorikoa. Ikerlerro honek adposizioen arteko hierarkia sintaktikoa zehaztea du xede. Bigarren atalak, bestalde, lekuzko adposizioek perpaus mailan betetzen duten funtzioa eta Aditz Sintagmarekiko (AS) duten harremana argitzea du helburu (testuko 3. atala) bai eta Helburu eta Iturburu adposizioen arteko asimetria argitzea ere (testuko 4. atala). Lanaren hirugarren atal nagusia (testuko 5. atala), azkenik, Helburu eta Iturburu adposizioen arteko asimetria arakatzeko eta zenbait alderdi argitzeko diseinatu dudan esperimentu batek osatzen du.

Ezer baino lehen, hasi gaitezen adposizioaren zertzelada orokor batzuekin. Adposizio kategoria definitzeko lagungarri diren argibideen bila jo dut literaturara

zenbait egileren eskutik. Esate baterako, Deaconek (2014) adposizio kategoria definitzerakoan aipatzen dituen hurbilketak berrikusiko ditut laburki, izan ere, egile honek adierazten duenez, kategoria hau zehazten zaila izateaz gain, askotarikoa da forma eta funtzio aldetik. Kontuan hartu behar da lehenik eta behin, adposizio labelpean bildu daitezkeela preposizioak, postposizioak eta beharbada horren ezagunak ez diren *zirkunposizioak* (1a) eta *anbiposizioak* –(1b) eta (1c)– ere. Zirkunposizioak, preposizio batez eta postposizio batez daude osatuak, eta biak batera erabiltzerakoan esanahi berri bat hartzen dute. Nederlanderaz, adibidez, emankorrak dira (Koopman 2000: 4). Anbiposizioak, berriz, preposizio zein postposizio gisa joka dezaketen adposizioak dira (Libert 2006, 2008: 143–144).

(1) a. *op* iemand *af* komen

LOK norbait ABL etorri

‘Norbaitenganantz etorri.’

(nederlandera, Koopman 2000: 4)

b. He walked *through* the forest

3SG.MASK ibili.IRGN zehar DET baso

‘Basoan zehar ibili zen.’

(ingelesa, Libert 2008: 144)

c. She sat the whole night *through*

3SG.FEM eseri.IRGN DET oso gau zehar

‘Gau osoan zehar eseri zen.’

(ingelesa, Libert 2008: 144)

Bigarrenik, hizkuntzaren ezaugarri tipologikoen arabera, adposizioek kategoria lotua ala kategoria askea osatzen dute. Hau da, zenbait hizkuntzatan adposizioak erro bati atxikitzen zaizkio, euskaraz esate baterako *etxe-tik*; beste zenbaitetan, aldiz, ez zaizkio erro bati atxikitzen eta hitz beregainak dira, gaztelerazko *desde casa* esate baterako.

Hirugarren eta azkenik, Deaconen (2014) hitzetan, adposizio kategoria zehazten zaila da, askotariko sailkapenak jaso baititu: kategoria lexikotzat hartu dute batzuek, Koopman (2000) eta Svenonius (2007) esaterako; beste batzuek, berriz, kategoria funtzionaltzat hartu dute, Bakerrek (2003) batik bat, kategoria itxia dela argudiatuz. Beste alde batetik, kategoria lexikoaren eta funtzionalaren artean banatutako kategoriatzat ere hartu dute zenbaitek. Zwartsek (1997, 2005) esaterako, hizkuntzarik hizkuntza adposizioen balioa alda daitekeela argudiatzen du. Hizkuntza batzuetan

adposizioak hitz lexikoak lirateke eta beste batzuetan, aldiz, hitz funtzionalak. Gainera, adposizioek aldi berean bi balioak izan ditzaketela dio Deaconek, nederlanderaz esaterako.

1.1. Lekuzko adposizioak euskal gramatiketan: Hualde (2003a) eta de Rijk (2008)

Euskarari dagokionez, Laffite (1944) eta Villasanteren (1978) deskribapen klasikoez geroztik, saiakera ugari egin dira postposizioak, eta, oro har, adposizioak deskribatzeko. Atal honetan, Hualdek (2003a) eta de Rijk (2008) egindako sailkapenak berrikusiko ditut. Honi dagokionez, Hualdek (2003a) izen-inflexioaren paradigma (ing. *nominal inflection*) eta postposizioak bereizten ditu. Izen inflexioa deritzon saila izen erroei atxikitzen zaizkien morfemek osatzen dute. Morfema hauek, ordea, ez dute perpauseko argumentuei buruzko informazio gramatikalik adierazten. Sail honetako morfema gehienak espazio eta denbora harremanak adierazteaz arduratzen dira. Aldi berean, postposizioen artean, *kokapen izenak* (ing. *locational nouns*) eta *postposizio aldagaitzak* (ing. *invariable postpositions*) bereizten ditu.

Bere sailkapenean, bost dira espazio harremanak adierazteko euskaraz erabil daitezkeen lekuzko adposizioak: *inesiboa* (-an), *ablatiboa* (-tik), *adlatiboa* (-ra), *direkzionala* edo *hurbiltze adlatiboa* (-rantz) eta *terminatiboa* edo *muga adlatiboa* (-raino). Hauetako batzuen gainean, *lekuzko bizidunentzako* sail berezia (ing. *animate local case endings*) eratzen dela dio: *inesiboa* (-gan), *ablatiboa* (-gandik), *adlatiboa* (-gana), *direkzionala* (-ganantz) eta *terminatiboa* (-ganaino). Haezaz gain, Euskara Arkaikotik eta Euskara Modernora bitarteko mendebaldeko lekukotasunetan, *ablatiboa* (-(r)ik, -rean, -reanik sg./ -tarik, -tarean, -tareanik pl. eta mgg.) eta *prosekutiboa* ‘non zehar’ (-ti sg./ -tati pl. eta mgg.) bereizi bide ziren.

Beste alde batetik, kokapen izenak genituzke, hots, kokapena adierazten duten aleak, hala nola, *albo*, *alde*, *aitzin*, *arte*, *aurre*, *atze*, *azpi*, *behe*, *gain*, *gibel* eta *ondo* (Hualde 2003b: 187). Euskarazko kokapen izen hauek ingelesez kokapena adierazten duten eta preposizio gisa erabiltzen diren *back*, *bottom*, *front*, *side*, *top* izenak bezalakoak dira (*atze*, *azpi*, *aurre*, *albo*, *gain*). Kokapen izen hauek edozein postposizioarekin konbina daitezke (*aurretik* / *aurrean* / *aurrera*), eta euren aurreko izena, genitiboan edo kasu markarik gabe adieraz daiteke, esate baterako, *iturri(aren) aurretik*, *zubi(aren) azpian* eta abar.

Euskal gramatikan, Hualdek ez ezik, de Rijkek (1990) ere aipatzen ditu kokapen izenak antzeko deitura batez, *leku izenak* (ing. *location nouns*) alegia. Egile honek zehazten duenez, ingelesak kokapena adierazteko *above, before, between, on, over*, bezalako preposizioak baditu ere, preposizio hauen euskarazko ordainak ezin dira kokapen izenak soilik erabiliz adierazi (*between* \neq *arte*; *between* = *arte-an*). Hortaz, de Rijkek dioenez (2008), erreferentzia puntua adierazteko euskaraz kokapen izenen eta izen-inflexioaren batura erabiltzen da, esate baterako, *goi-an, aurre-tik, arte-an, gain-(e)an* (de Rijk 2008: 69).

Zentzu honetan, kokapen izenek lekuzko inflexio markak behar dituzte sintaktikoki gauzatzeko (de Rijk 1990: 4) eta halaxe da neurri batean. Nolanahi ere den, kontuan hartu behar da kokapen edo leku izen hauek izen gisa ere ager daitezkeela perpaus batean, determinatzaile sintagma baten barruan eta lekuzko adposiziorik gabe (e.g. *Etxe goibelaren behe guztia hartzen duen tabernan...*, Atxaga *Groenlandiako lezioa*, 47).

Kokapen izenek, ikusiko dugunez, berebiziko garrantzia dute lan honetako lehen atalean onetsi dudan ildo teorikoan, hots, Svenoniusen (2004) teorian. Izan ere, multzo honetan sailkatzen dira hizkuntza askotan espazio harremanak adierazteko erabiltzen diren izenak. Dena den, kokapen izen eta izen-inflexio terminoen aldean, *Ardatz Zati* (ing. *Axial Parts*) eta lekuzko adposizio terminoak hobetsiko ditut, izan ere, hauek dira Svenoniusen proposamenean erabiltzen diren terminoak. Hori dela eta, aipatu ditudan *goi-an, aurre-tik, arte-an* gisako adibideek *Ardatz Zati*en eta lekuzko adposizioen arteko batura erakusten dutela proposatuko dut.

1.2. Euskal adposizioak eta Ardatz Zatiak Svenoniusen (2004) analisia oinarri


Aurreko 1.1. atalean esan dudan bezala, adposizio kategoriaren barruan aniztasun handia dago; preposizio eta postposizio aske deritzanez gain, lekuzko izen-inflexioa (erroari atxikitzen zaizkion lekuzko adposizioak) eta kokapen izenak ere adposizio labelpean sailkatzen baitira.

Kategoria azalgarriagoa egin nahian, Svenoniusek (2004, 2007b) adposizioak (P kategoria) dekonposatzeko proposamen berri bat egin zuen. Svenoniusen (2004) proposamenak Talmyren (2000) *Irudiaren* (ing. *Figure*) eta *Eremuaren* (ing. *Ground*) arteko aurkakotasun hipotesia du oinarrian. Talmyk (2000) dioenez, adposizioek

Irudiaren (ing. *Figure*) eta *Eremuaren* (ing. *Ground*) arteko aurkakotasuna adierazten dute. Irudia perpauseko determinatzaile sintagma (DS) mugikorra da, subjektua, eta dinamikotasuna adierazten du. Eremua, berriz, perpauseko erreferentzia puntu egonkorra adierazten duen DSa da, adposizioen osagarria. Esate baterako, *txoria kaiolan dago* perpausean, *kaiola* perpauseko Eremua litzateke, Irudiak (*txoria*) jasaten dituen aldaketak espazioan kokatzen dituen elementua.

Bereizketa hau oinarri hartuta, Svenoniusek (2004) adposizio kategoria buru sintaktiko gehiagotan dekonposatzen du, *Bidea* (ing. *Path*) eta *Lekua* (ing. *Place*) bereiziz, Jackendoffek (1983) iradoki bezala. Aldi berean, Lekua bi buru sintaktikotan dekonposatzen du Svenoniusek (2004) analisi honetan, Lekua eta *Ardatz Zatiak* (ing. *Axial Parts*) bereiziz. Hauxe gain, kasuaren buru sintaktikoa legoke, hots, DSren osagarria. Ardatz Zatiak, kasuak eta DSak perpauseko Eremua osatzen dute, erreferentzia puntua alegia. Hortaz, P kategorian bereizten dituen Bide eta Leku buru sintaktikoen espazio harremanak adierazten dituzte. Bideak mugimenduaren noranzkoa adierazten du, Bideak eta Lekuak, berriz, mugimenduak espazioan duen kokapena. Adibide gisa, hizkuntza buru-lehen bateko, ingelesezko *from in front of the house* (2) PSren egitura aurkezten du (Svenonius 2007b:1).


(2) BideS



the house (Svenonius 2007b: 1)

Goiko adibidearen analisisan, buru sintaktiko guztiak islatzen dira. Honek ez du esan nahi ezinbestean buru sintaktiko guztiak beti islatzen direnik. Esaterako, *from the house* (3) PSren egitura ez da horren konplexua.

(3) BideS



Lehenago, 1.1. atalean, esan dudana bezala, Ardatz Zatiak barnebiltzen ditu hizkuntza askok espazio harremanak adierazteko darabiltzaten hitzak. Hizkuntza askotan, kokapena adierazten duten Ardatz Zatiak lexikoki gauzatzen dira, lekuzko adposizio batekin konbinatuz. Lekuaren eta Ardatz Zatiaren buru sintaktikoak lexikalizatzeko morfema bana erabiltzen dituen hizkuntzetako bat japoniera da (Svenonius 2007b: 7–8).

(4) a. Taro-ga isu-ni suwatta

Taro-NOM aulki-LOK eseri.IRGN

'Taro aulkian eseri zen.'

b. Mary-ga Taro-no mae-ni suwatteiru

Mary-NOM Taro-GEN aurre-LOK eseri.IRGN.BTGB

'Mary Taroren aurrean eserita dago.'

(Takamine 2006 apud Svenonius 2007b: 8)

Adibide hauetan ikus daitekeenez, japonierazko *-ni* postposizio lokatiboaren osagarria izen bat izan daiteke, *isu* 'aulki' (4a) eta baita Ardatz Zati bat ere, *mae* 'aurre' (4b). Bi kasu hauetan, *-ni* postposizioa Lekuari dagokion buru sintaktikoan gauzatuko litzateke, baina Ardatz Zatiari dagokion buru sintaktikoa hutsik legoke (4a) adibidean (Svenonius 2007b: 8). Egoera bertsua dugu euskaraz ere, *-an* lekuzko adposizio inesiboak izen bat (*mendi-an*) zein Ardatz Zati bat (*azpi-an*) izan baititzake osagarri gisa, ala biak aldi berean (*mendi azpi-an*). Hortaz, euskaraz *mendi-an* diogunean Ardatz Zatia hutsik legoke, baita japonieraz *isu-ni* (*aulki-an*) diotenean ere.

2. Lekuzko adposizioak Nanosintaxian

Nanosintaxia adposizio kategoria islapen edo buru sintaktiko ugaritan dekonposatu daitekeela dioen ildo teorikoa da. Eredu honetan zehazten denaren arabera, adposizio edo morfema bakoitzak islapen sintaktiko bat lexikalizatzen du. Beraz, aski dira hierarkikoki antolaturiko islapen sintaktiko jakin batzuk, adposizioen bitartez espazio harreman guztiak lexikalizatu ahal izateko.

2.1. Nanosintaxiaren eremu teorikoa eta oinarritzko kontzeptuak

Orain arte, adposizio kategoriaren ezaugarri nagusiak aurkeztu ditut, bai eta euskarazko gramatiketan adposizioak sailkatzeko egin diren proposamenak ere. Bestalde, 1.2. atalean, Svenoniusek (2004, 2007) adposizio kategoria buru sintaktiko gehiagotan dekonposatzeko egiten duen lehendabiziko proposamena ere izan dut hizpide. Dena den, komenigarria da dagoeneko aipatu ditudan oinarritzko kontzeptu batzuk argitzea, lan honen lehendabiziko atale nagusian, Nanosintaxiaren ingurukoan, jarraituko dudan ildo teorikoaren oinarria baitira.

Horretarako, Romeuren (2014) tesia hartuko dut oinarri, bertan adposizioak aztertzen dituzten ildo teoriko nagusiak berrikusten baititu. Lehenik eta behin, Romeuk (2014) Nanosintaxiaz dioena jasotzen dut. Nanosintaxiaren arabera, adposizio kategoria islapen edo buru sintaktiko ugaritan dekonposatu daiteke. Bestalde, lotura zuzena dago adposizio edo item lexikoen eta espazio harremanak adierazten dituzten islapen sintaktikoen artean. Ildo teoriko honen arabera, item lexikoak harreman sintaktiko unibertsalak lexikalizatzear arduratzen dira, eta item lexiko hauek ez dute harreman sintaktikoak aldatzeko gaitasunik. Lexikalizatzen den espazio harreman bakoitzak islapen sintaktiko bat adierazten du, eta islapen sintaktiko hauek hierarkia unibertsal batean antolatzen dira. Dena dela, adposizio batek espazio harreman bat lexikalizatzen duenean ez da ezinbestekoa hierarkian ageri diren islapen guztiak lexikalizatzea (Romeu 2014: 18).

Ohikoena adposizio bakoitzak espazio harreman bat adieraztea da. Esate baterako, euskarazko inesiboak *Lekua* lexikalizatzen du. Nanosintaxian honi *Lexikalizazio Hertsia* (ing. *Exhaustive Lexicalization*) deritzo. Beste zenbaitetan, adposizio batek islapen sintaktiko bat baino gehiago lexikalizatu ditzake. Hau egiteko modu ugari daude, eta horietako bat *Sintagmaren Gauzapena* (ing. *Phrasal spell-out*) da. Sintagmaren gauzapenak adierazten duenez, adposizio bakar batek elkarren alboan

dauden bi islapen sintaktiko lexikalizatu ditzake. Hurrengo 2.1. atalean azalduko dudanez, adlatiboak *Lekua* eta *Helburua* lexikalizatzen ditu. Gainera, hizkuntza batzuetan adposizio berak islapen sintaktiko ezberdinak lexikalizatu ditzake. Adposizioak lexikalizatzen duen islapen sintaktiko aldi bakoitzak espazio harreman ezberdin bat adieraziko du. Esate baterako, errusierazko в ‘non’, ‘nora’ preposizioak *Lekua* (в библиотеке ‘liburutegian’) ala *Helburua* (в Москву ‘Moskura’) lexikalizatu ditzake, ISren kasuaren arabera. Honi *Eransketa Anizkuna* (ing. *Multi-attachment*) deritzo (Romeu 2014:17–18).

Nanosintaxia korrante teoriko zurrunezia izan daiteke neurri batean, hori dela eta, azken hamarkadetan adposizioak aztertzeo hurbilpen malguago batek indarra hartu duela zehazten du Romeuk (2014). Hurbilpen honi *Eredu Kartografikoa* (Cinque 1999, Cinque eta Rizzi 2010) deritzo. Eredu honetan ez dago horren harreman esturik item lexikoen eta harreman sintaktikoak adierazten dituzten islapenen artean. Gainera, funtzio semantiko bat kodetzen duten gune sintaktiko ugari egon daitezke. Eredu Kartografikoaren helburua egitura sintaktiko-semantikoak diseinatzea da, ezaugarri semantikoak konbinatzen diren hierarkia edo ordena zehazteko. Hierarkia zehaztu ondoren, elementu lexikoen arteko erlazioak azaldu ahal izatea bilatzen du eredu honek, horretarako gune sintaktiko gehiago sortu beharra badago ere (Romeu 2014: 5).

Dena den, islapen sintaktiko ugari sortzea arazotsua izan daiteke. Esate baterako, Eredu Kartografikoan 400 islapenetik gora proposatu dira eta honek zaildu egiten du islapenen arteko hautaketa prozesua azaltzea. Ez da argi azaltzen islapen batek azpiko islapenen ezaugarriak banan-banan hautatzen dituen, ala oso bestela, guztien batura hautatzen duen.

2.2. Pantchevaren (2011) Bide Sintagmaren dekonposizioa euskaraz


Euskaraz lekuzko adposizioak buru sintaktikotan nola dekonposatzen diren azaltzeko, Pantcheva (2011) eta Etxepare (2013) lanetan egiten diren proposamen teorikoetatik abiatzen naiz lan honetan. Pantchevak (2011) proposatzen duen teorian, espazio harremanak adierazten dituen Bide Sintagma bost buru sintaktikotan bereizten da: *Lekua* > *Helburua* > *Jatorria* > *Bidea* > (*Eskala*). Bestalde, Etxeparek (2013), oinarrizko hiru adposizio nabarmentzen ditu euskaraz: inesiboa, adlatiboa eta ablatiboa. Lekuzko adposizio hauetako bakoitza Pantchevak (2011) proposaturiko buru sintaktiko banatan lexikalizatzen da, inesiboa *Leku* buruan, adlatiboa *Helburu* buruan, eta

ablatiboa *Jatorri* edo *Iturburu* buruan. Lehendabizi, 2.2. atal honetan, euskarazko oinarrizko hiru lekuzko adposizioak aztergai dituen egitura sintaktiko bat proposatuko dut, eta ondorengo ataletan (2.3, 2.4. eta 2.5. ataletan), egitura sintaktiko hau garatuko dut, euskarak dituen gainerako lekuzko adposizioak Pantchevaren analisisira egokituz.

Hasi gaitezen Pantchevaren (2011) teoriatik. Egile honek dioenez, munduko hizkuntzetan mugimenduaren noranzkotasuna adierazteko erabiltzen diren adposizioak eta hauek sortzen dituzten egitura sintaktikoak uste baino askoz aberatsagoak dira. Lehenagoko proposamenetan, nolabaiteko mugimendu edo noranzkotasuna adierazten duten egitura sintaktikoetan, Jackendoffek (1983) eta Svenoniussek (2004, 2007b) bi buru sintaktiko bereizi izan dituzte. Bi buru sintaktiko hauek bi objekturi egiten diete erreferentzia, hots, objektu egonkor bati eta objektu horrekiko mugitzen den objektu dinamikoari. Kokapena adierazten duen buru sintaktiko egonkorrari *LekuS* deritza (ing. *Place Phrase*), bestetik, buru sintaktiko dinamikoari *BideS* (ing. *Path Phrase*).

Pantchevaren (2011) ustez, adposizio ugarik adieraz dezakete dinamikotasuna eta hortaz, *BideS* buru sintaktiko gehiagotan dekonposa daitekeela ondorioztatu du, honako hauek bereiziz: *Lekua* > *Helburua* > *Jatorria* > *Bidea* > (*Eskala*). Proposamen honen arabera, Adposizio Sintagmaren barnean, hizkuntza jakin batean bereizten diren lekuzko adposizioak adina buru sintaktiko bereizten dira. Gainera, hierarkia honetako buru sintaktikoak gauzatu ahal izateko, buru horietako bakoitzaren gauzapen sintaktikoa adposizio zehatz batekin lotuta egon behar da. Oinarrizko adposizioa lokatiboa da, Leku burua lexikalizatzen du eta [Leku] tasuna adierazten du. Adlatiboak, berriz, Leku eta Helburu buruak lexikalizatuko lituzke, [Leku] eta [Helburu] tasunak adieraziz. Bestetik, ablatiboak Leku, Helburu eta Jatorri buruak lexikalizatuko lituzke, hiru buruen tasunak adieraziz.

Dena den, ez da ezinbestekoa buru sintaktiko guztiak aldi berean gauzatzea. Esate baterako, Bide burua Jatorri buruaren gainean sortzen den islapena izan ohi da, [Bide] tasunak, ‘zehartasuna’, ‘bidea’ adierazten du. Eskala burua berriz, edozein bururen gaineko islapena izan daiteke eta [Eskala] tasunak ‘zehazkabetasuna’ adierazi ohi du, baita mugimendua zenbateraino gauzatu den (‘abiapuntutik hurbil’, ‘ia helmugan’).



Chomskyren *Uniformetasun Baldintzan*¹ oinarrituz, hierarkia sintaktiko hau unibertsa dela defendatzen du Pantchevak. Izan ere, Bide Sintagmaren egitura sintaktikoak Helburu Sintagmaren egitura barne hartzen du, baita Bidea eta Helburua adierazteko markatzaile morfologikorik ez duten hizkuntzetan ere (Pantcheva 2011: xiv).

Gainera, hizkuntzek noranzkotasuna adierazteko darabiltzaten markatzaile morfologikoak mota askotakoak izan daitezke. Esaterako, Helburua eta Jatorri edo Iturburua adierazteko markatzaile monomorfemiko bana darabilte hizkuntza batzuek, tartean Eskoziako galeserak² (6). Beste zenbaitetan, Helburua eta Iturburua lokatibozko morfema batez (Leku buruan) eta noranzkotasuna adierazten duen morfema batez adierazten dira, tsezera esaterako (7). Azkenik, badira Iturburua sortzeko, Leku eta Helburu morfemei beste markatzaile bat gaineratzen dieten hizkuntzak, txamalalera³ kasu (8):

- | | | | |
|-----|--|--|--------------------|
| (6) | a. gu bosca
ADL kutxa
'kutxa batera' | b. bho bosca
ABL kutxa
'kutxa batetik' | Eskoziako galesera |
|-----|--|--|--------------------|

¹ Artiagoitiak (2000) honela itzultzen du *Uniformetasunaren Baldintza*: aurkakorik izan ezean, hizkuntzak uniformeak dira eta izan dezaketen aldakortasuna erraz hauteman daiteke.

² Eskoziako galesera zelta hizkuntzen familiako hizkuntza bat da, Eskozia ipar-mendebaldean hitz egiten dena (WALS, https://wals.info/languoid/lect/wals_code_gae).

³ Tsezera eta txamalalera Kaukaso ipar-ekialdeko Nagh-Daghestan familiakoa hizkuntzak dira, Dagestan eskualdean hitz egiten direnak (Errusia eta Azerbaijan) (WALS, <https://wals.info/languoid/lect/wals_code_tsz>)(WALS<https://wals.info/languoid/lect/wals_code_chm>).


- | | | | |
|-----|---|--|--|
| (7) | a. besuro-xo-r
arrain-INE-ADL
'arrainera' | b. besuro-x-ay
fish-INE-ABL
'arrainetik' | tsezera, Dagestaniarra |
| (8) | a. mik _y i-l-u
bide-INE-ADL
'bidean zehar' | b. mik _y i-l-u-r
bide-INE-ADL-ABL
'bidetik kanpora' | txamalalera, Dagestaniarra
(Pantcheva, 2011: 46–47) |

Bestetik, Etxeparek (2013), euskaraz besteen artean gailentzen diren oinarrizko hiru adposizio nabarmentzen ditu: inesiboa, adlatiboa eta ablatiboa. Etxepareren (2013) analisisian inesibozko adposizioa gauzatzen den buru sintaktikoa *Lekua* (ing. *Location*) da; adlatibozko adposizioa gauzatzen den buru sintaktikoa *Bidea* (ing. *Path*) da eta ablatiboa *Iturburuan* (ing. *Source*) gauzatzen da. Etxeparek (2013) zehazten duenez, oinarrizko hiru adposizio hauen lexikalizazioak garapen mailakatua dauka. Inesiboak Leku burua lexikalizatzen du; adlatiboak Leku eta Bide buruak lexikalizatzen ditu aldi berean, eta ablatiboak Leku, Bide eta Jatorri buruak lexikalizatzen ditu. Hortaz, adposizioak antolaketa hierarkikoa duten egitura konplexuak dira (Etxepare 2013: 71).

Etxeparek (2013) BideS (ing. *Path Phrase*) deitura erabiltzen du adlatiboa adierazteko. Bestalde, Pantchevak (2011) adlatiboa adierazteko HelburuS (ing. *Goal Phrase*) darabil. Pantchevaren analisisian, bestelako funtzioa du Bide Sintagmak, batetik, Helburu (ing. *Goal*) eta Iturburu (ing. *Source*) adposizioak barnebiltzen dituen termino orokor gisa erabiltzen da. Bestetik, zenbait hizkuntzatan bada Bide buru sintaktikoa lexikalizatu dezakeen beste lekuzko adposizio bat, prosekutiboa ('nondik zehar') hain zuzen. Beraz, Bide burua prosekutiboaren eta Iturburu lexikalizatzen duen ablatiboaren arteko ñabardura adierazteko ere erabil daiteke. Esan bezala, Etxepare aitzindari izan da euskarazko lekuzko adposizioen antolamendu hierarkikoa aurkezten, baina Helburu eta Iturburuaren arteko asimetria aztergai izango dudanez, Pantchevaren terminologia eta sailkapena hobetsiko ditut.

Aurrekari hauez gain, egitura sintaktikoa proposatzerakoan aintzat hartu dut 1.2. atalean aurkeztu dudana Svenoniusen (2004, 2007) ekarpena. Izan ere, Pantcheva (2011) eta Etxeparek (2013) nabarmentzen dituzten oinarrizko hiru adposizioak Ardatz Zatiekin batera aztertzea ahalbidetzen du Svenoniusen proposamenak (2004, 2007). Gauzak horrela, honako hau da euskararen gisako hizkuntza buru-azken batean oinarrizko hiru adposizioak irudikatze proposatzen dudana egitura sintaktikoa (9):

(9)



Honako (9) zuhaitzak buru sintaktikoen hierarkia irudikatzea du helburu. Kasu honetan, aukera guztiak irudikatu dira. Lehendabizi, adposizioen osagarria den izen edo DSa legoke. Honen jarraian, Svenoniusek (2007) KasuS (ing. *Case Phrase*) bereizten du, eta honen bidez genitiboa erakusten duten egiturak azal daitezke; kasu honetan maila berean kokatu ditut nik. Ondoren Ardatz Zatia kokatzen da. Bi hauek perpauseko Eremua osatzen dute, erreferentzia puntua alegia. Azkenik, hiru adposizioen buru sintaktikoak ditugu, hots, Lekua, Helburua eta Jatorria. Honekin batera, kontuan hartzekoa da zuhaitzean lexikoki gauzatzen den gorenko buru sintaktikoak, aurreko buru sintaktikoen tasunak hartzen dituela. Esaterako, Jatorri burua, *-tik*, lexikalizatzen denean, [Leku], [Helburu] eta [Jatorri] tasunak adierazten ditu. Zuhaitza behar bezala interpretatzeko aintzat hartu behar da buru sintaktiko guztiak ez direla ezinbestean gauzatu behar. Esate baterako, *etxean* Adposizio Sintagman, Ardatz Zatiaren buruari dagokion kokagunea hutsik legoke, lehen (1.2. atalean) esan dudana bezala, eta hortaz, aski litzateke DSaren gainean LekuS irudikatzea.

2.3. MugaS eta EskalaS: euskarazko terminatiboaren eta direkzionalaren analisia

Egungo euskararen badira Pantchevaren (2011) hipotesian aurkezturiko analisi sintaktikoen bidez aztertu ez diren bi lekuzko adposizio. Bi adposizio hauek dira direkzionala edo euskaraz hurbiltze adlatiboa deritzon *-rantz*, eta terminatiboa edo euskaraz muga adlatiboa deritzon *-raino*. Adposizio hauek Pantchevaren analisi hierarkikoaren arabera interpreta daitezke. Horretarako, Berrok (2015) kokapen aditzak

deskribatzerakoan aurkezten duen islapen sintaktikoaz (EskalaS) baliatuko naiz, direkzionala (hurbiltze adlatiboa) azaltzeko. Nik terminatiboa (muga adlatiboa) azaltzeko MugaS erabiltzea proposatuko dut. Berrok deskribatzen dituen kokapen aditzetan, *-tu* morfema, adlatibozko adposizioari atxikitzen zaio. Esaterako, *itsasora-tu*, *kanpora-tu* bezalakoak lirateke kokapen aditzak. Berroren hipotesiaren arabera, *-tu* atzizkiak osagarritzat har dezakeen adposizio sintagma bakarra HelburuS izan daiteke, ezinezkoak baitira inesiboaren (**itsasoantu*) edota hurbiltze adlatiboaren (**itsasoranztu*) gainean eraturiko kokapen aditzak (Berro 2015: 137–138). Ildo beretik, gaineratzen dut *-tu* atzizkiak ezin dezakeela osagarritzat muga adlatiboa (MugaS) hartu (**itsasorainotu*).

Aipatzekoa da Bide Sintagmaren dekonposizioan bereizten dituen buru sintaktikoez gain, EskalaS eta MugaS ere baliatzen dituela Pantchevak. Egile honek adierazten duenez, “*The heads Scale and Bound can come on top of any other Path head*” Pantcheva (2011: xviii). Hau da, Eskala eta Muga buru sintaktikoak, edozein Bide bururen gainean isla daitezke. Euskaraz, *-ra* adlatiboak, *-(d)ino* muga morfemarekin bat egitean sortzen da MugaS, hau da, Muga buruak Helburu burua hautatzen duenean (10). Pantchevak (2011) zehazten duenez, muga morfemak ez dira lekuzko adposizio beregainak. Dena den, morfema hauek *Mugatutako Helburu Sintagmak* (ing. *Terminative Path*) eratzea ahalbidetzen dute.


Euskarak ez ezik, vepsierak⁴ ere badu morfema mugatzaile bat, *-sei*. Vepsierazko terminatiboa ere *-ha*, adlatiboak (edo ilatiboak ‘barnera’), *-sei* morfema mugatzailea elkartzean eratzen da, *-hasei* ‘noraino’ forma sortuz (10):

- (9) a. etxe-ra b. etxe-raino
 etxe-ADL etxe-TERM (Ibarretxe-Antuñano 2004 apud Pantcheva 2011: 60)
- (10) a. mec-ha b. mec-hasei
 baso-ADL baso-TERM
 ‘Basora’ ‘Basoraino’ (Zajtseva 1981 apud Pantcheva 2011: 60)

Beraz, hau litzateke euskarazko terminatiboa edo muga-adlatiboa irudikatuko lukeen egitura sintaktikoa (11):

⁴ Vepsiera uraldar familiako hizkuntza da, adar balto-finikokoa eta Karelia eta Ingria eskualdeetan (Errusia) hitz egiten da (WALS <https://wals.info/languoid/lect/wals_code_vep>).


(11)



Ikus daitekeenez, *-ra* adlatiboazko morfemak Leku eta Helburu buruak lexikalizatzen ditu, norabidea adieraziz. Ondoren, *-(d)ino* muga morfemak Muga burua lexikalizatzen du, norabidearen amai-puntua adieraziz. Azkenik, Muga buruak Helburu burua hautatzen du, MugaS sortuz.

Bestalde, EskalaS noranzkotasuna adierazteko erabiltzen da, hau da, helmuga helburu duen espazio-mugimendua adierazteaz gain, helmugara iristeko zehazkabetasuna ere adierazten du, helmugara hurbildu ahala murriztuz doana. EskalaS *-ra* adlatiboak, *-(a)ntz* noranzko morfemarekin bat egitean sortzen da, hau da, Eskala buruak Helburu burua hautatzen duenean. Pantchevak (2011) aipatzen duenez, noranzko morfema edo eskala morfema hauek ez dira lekuzko adposizio beregainak, zenbait hizkuntzatan morfema hauek Ardatz Zatieta izan dezakete jatorria. Edonola ere, morfema hauek garrantzia handia dute, *Hurbiltze Sintagmak* (ing. *Approximative Path*) eratzea ahalbidetzen baitute. Honek ohiko adlatiboaz bestelako adiera duen adposizio bat sortzen du, *-rantz* hurbiltze adlatiboa edo direkzionala alegia (12):

(12)



Ikusten denez, Panchevaren analisiak, Etxeparek erakutsi duen bezala, oinarrizko hiru leku adposizioak azaltzen ditu, hots, inesiboa (lokatiboa); adlatiboa (bidea) eta ablatiboa (iturburua). Baina hemen erakutsi dudanez, Panchevaren analisiak euskaraz arreta gutxi jaso duten beste bi adposizio ere azal ditzake: batetik hurbiltze adlatiboa, nire azterbidean EskalaS bat osatuko lukeena, Berrok (2015) kokapen aditzen analisisian proposatu bezala, eta bestetik muga adlatiboa MugaS gisa interpretatzen dudana.

2.4. ZeharS: euskal ablatiboaren eta prosekutiboaren analisi bat

Lehenago 2.2. atalean aipatu dudan bezala, Pantchevaren (2011) analisisian oinarriz dekonposa daitezkeen buru sintaktikoen kopurua hizkuntzak espazio harremanak adierazteko dituen ñabarduren araberakoa dela dirudi. Buru sintaktiko horietako bat Bide/Zehar burua da, Jatorri buruaren gainean sortzen dena eta ‘zehartasuna’, ‘bidea’ adierazten duena. Gaur egungo euskarak ez du ablatiboaren ‘nondik’ eta prosekutiboaren ‘non(dik) zehar’ arteko aldea adierazteko bi adposizio; *-tik* ablatiboak Iturburua lexikalizatzen du, baina ez dago Bide/Zehar buru sintaktikoa lexikalizatzeko beste adposiziorik.

Beraz, atal honetan, lekuzko adposizioen analisi diakroniko bat iradokitzen dut, Etxeberria (2020) lanean esandakoaren ildotik. Izan ere, Euskara Arkaikotik eta Euskara Modernora bitarteko (XVI.–XVIII. mendeak) mendebaldeko lekukotasunetan, ablatiboa

-ti baino konplexuagoa dela dirudi. Kontrajartzen diren bi ezaugarri hauek azaltzeko, Santazilia (2013) mendebaldeko ablatiboak eta prosekutiboak izandako bilakaera azaltzen duen kronologia hartuko dut abiapuntutzat.

Lehendabiziko garai batean, *-(r)ik*⁵ morfemak ablatiboa eta *-ti(k)* morfemak prosekutiboa adierazi bide zuten euskararen aldaera guztietan. Bigarren urrats batean, XVI. eta XVII. mendeetako mendebaldeko lekukotasunetan, *-rean* ablatiboa sortu zen berrikuntza moduan. Dena den, *-rean* eta *-(r)ik* banaketa osagarrian ageri dira. Oro har, *-rean* erabiltzen da, baina bizidunez edo leku izen berezietz hitz egitean *-(r)ik* edota *-(gan)ik* erabiltzen da, baita ablatiboak denbora balioa duenean, *one-rik aurre-ra* ‘hemendik aurrera’ esaterako. Hirugarren urrats batean, XVIII. mendean, prosekutiboko *-tik* morfemak *-(r)ik* ordezkatzeko du eta *-rean* indarra galduz doan neurrian, *-reanik* forma pleonastikoari eutsiko zaio. Azkenik, XIX. mendetik aurrera, ablatiboaren eta prosekutiboaren aurkakotasuna neutraldu eta *-tik* bidez adieraziko dira biak (Santazilia, 2013: 262–264).

Hortaz, badirudi ablatibo eta prosekutiboaren arteko bereizketa adieraz zitekeen lehen aldian (XVI. mende aurreko aldian) ez dela konplexutasun sintaktikoaren eta morfologikoaren arteko aurkakotasunik ageri: *-rik* Jatorri buruan eta *-ti(k)* Zehar buruan. Ondoren, eta partitibozko morfematik bereizteko premia tarteko, *-rean* ablatiboa sortzen da. Dirudenez, *-rik* Jatorri buruaren lokatibotasuna modu gardenagoan adierazteko beharrak *-rean* sortzea eragingo zukeen, azken hau inesibozko *-an* morfematik gertuago baitago. Beranduago, *-rean* gardena ez eta *-reanik* pleonastikoa nagusitzen da. Beraz, ez dirudi konplexutasun morfologikoa espazio-harreman konplexuagoak (adib. *muga ablatiboa *-rean + -no *‘hemendinotik’) adierazteko sortzen denik, ablatiboaren lekuzko izaera gardenagoa egiteko baizik.

2.5. Pantchevaren (2011) hipotesia hedatzen


2.5.1. Mendebaldeko *-ra arte* egitura terminatiboaren analisisa

Mendebaldean terminatiboa edo muga adlatiboa adierazten duen *-ra arte* egitura aurkitzen dugu. Ezer baino lehen, *-raino* eta *-ra artek* duten banaketa zehaztu beharra dago. Oro har, *-raino* espazio haremanak adierazteko erabiltzen da; *-ra arte*, berriz,

⁵ Ariztimuñok (2014) dioenez, ablatiboak zein partitiboak morfema honetan lukete jatorria. Mugatutasuna eta zenbaki bereizketa garatzearekin batera, zehazkabetasuna adierazten zuen *-rik* partitibo eta ablatibo singularreko morfema bilakatuko da (*-etarik* pluralean eta *-tarik* mugagabeen). Ondoren prosekutiboko *-ti* ablatibora hedatuko da (Ariztimuño 2014: 338).


denbora adierazteko: *arratsalde(ra) arte*. Hala ere, *-raino* denbora adierarekin ere erabiltzen da, *gaurdaino* eta *egundaino*; eta aipatu bezala, mendebaldean *-ra arte* da muga adlatiboa, *Lezamara arte*, *etxera arte* (EGLU I 1991: 267–268). Dirudienez, mendebaldean *arte* Ardatz Zatiak *-ino* morfema mugatzailearen balio bera hartu du. Aipatu dudan bezala, *-ino* morfema mugatzailea ez da lekuzko adposizio beregain bat, *-ra* adlatiboarekin bat egitean Muga burua lexikalizatzen duen morfema bat baizik. Hortaz, pentsatzekoa da Muga buru sintaktikoaren gauzapean lexikoa *arte* Ardatz Zatiak gauzatzen duela mendebaldean.

Hau honela bada, muga balioa duen *arte* Ardatz Zatia ez litzateke ohiko osagarri gunean sortuko, ez baitu lotura semantiko esturik Izen Sintagmarekin (*etxe artera* ≠ *etxera arte*). Beraz, *arte* Ardatz Zatia beste gune batean sortzen dela proposatu beharra dago, eta [Muga] tasunak [Helburu] tasunarekin espazio harreman estua duenez, Ardatz Zatia Helburu Sintagman sortzen dela proposatuko dut, buru-mugimendu baten bitartez *arte* Muga burura mugitzen delarik. Kasu honetan, Helburu burua, *-ra*, lexikoki gauzatzen denean, [Leku] eta [Helburu] tasunak adierazten ditu. Honen gaineko islapena den Muga burua gauzatzeaz arduratzen den muga morfemarik ageri ez denez, *arte* Ardatz Zatia Muga burua mugitzen da, hau lexikalizatu eta [Muga] tasuna adieraziz. Jarraian, (14) zuhaitzean *etxera arte* muga egitura islatzen da:



Honen aldean, zubereraz lekukotzen den *-la(t) artio* > *-lartio* muga adlatiboaren kasuan, muga morfema bikoitza erabiltzen dela ikus daiteke. Batetik –2.3. atalean aipatu

dudan bezala–, Muga burua lexikalizatzen duen *-(d)ino* muga morfema legoke, eta bestetik, *arte* Ardatz Zatia. Azken hau Muga burura mugitzen denean, *-(d)ino* morfemarekin bat egin eta *artio* sorten da. Hortaz, [Muga] tasuna Ardatz Zatiak eta muga morfemak adierazten dute, (15) adibideko *itxasulartio*-k erakusten duen moduan:




Amaitzeko, euskaraz Muga burua lexikalizatzeko aukera ugari dagoela ekarri dut gogora. Batetik, 2.3. atalean aurkeztu dudan *-(d)ino* muga morfemak lexikalizatu dezake Muga burua. Bestetik, berariazko morfema mugatzailerik ageri ez denean, *arte* Ardatz Zatiak lexikalizatu dezake Muga burua. Azkenik, Ardatz Zatiaren eta morfema mugatzailearen baturak ere bete dezake funtzio hau, zubererazko *-lartio* formak erakusten duen bezala.

2.5.2. Ardatz Zati bidezko prosekutiboa: *-an zehar* eta *-tik barrena*

Historikoki ablatiboaren eta prosekutiboaren arteko aurkakotasuna morfologikoki adierazteko egon den aukeraren aldean, egungo euskaraz *non zehar* eta *nondik barrena* moduko adposizio + Ardatz Zati gisako egitura konplexuak erabiltzen dira. Bi Ardatz Zati hauen artean, *zehar* formaren jatorria ez da gardena; aldiz, *barrena* forman, *barren* Ardatz zatia eta Helburuzko adposizioaren *-a* morfema bereiz daitezke. Dena den, *barrenak* Helburu balioa galdu du, Bidea adierazten duen Ardatz Zati gisa gramatikalizatu baita, eta nik honela aztertuko dut. Beraz, [Muga] tasuna adierazten duten Ardatz Zatiak dauden bezala, *zehar* eta *barrena* gisako Ardatz Zatiak adposizio

egituraren barruan Zehar burura mugitzen direla proposatuko dut, [Zehar] edo [Bide] tasuna adierazten dutelarik.

Hala eta guztiz ere, *nondik barrena* eta *non zehar* gisakoek ez dute egitura bera, izan ere, *errepidetik barrena* bezalakoetan (16), Jatorri burua lexikalizatzen duen *-tik* ablatiboak [Leku], [Helburu] eta [Jatorri] tasunak adierazten ditu eta *barrena* Ardatz Zatiak [Zehar] tasuna. Bestetik, *kalean zehar* (17) gisakoetan, *-an* inesiboak Leku burua lexikalizatzen duenez, [Leku] tasuna adierazten du soilik; [Helburu], [Jatorri] eta [Zehar] tasunak *zehar* Ardatza Zatiak adierazten ditu:



Honako (16) eta (17) egituretan, Ardatz Zatiak adposizioen hierarkiaren oinarrian, LekuS osagarri gunean, sortzen direla, eta Bide/Zehar burura mugitzen direla proposatu dut. Dena den, bi buru lexikalizatzen dituzten MugaS eta EskalaS egituretan bezala, baliteke Ardatz Zatiak zuzenenan Bide burua lexikalizatzea. Izan ere, egitura hauetan, *errepidetik barrena* eta *kalean zehar* irudikatu nahi dira, ez *errepide barrenetik ala *kale zeharrean*.

2.5.3. Lekuzko adposizio bizidunen analisia Etxepare (2013) oinarri (-ga-n-X)

Etxeparek (2013) adposizio egitura bizidunak ere kontuan hartu ditu bere

analisian. Bere ustez, adposizio egitura bizidunetan, ez da bizigabeetako *-ra* adlatiboazko morfema ageri, eta, hortaz, buru honek ez ditu Leku burua eta Helburu burua lexikoki gauzaten. Aldiz, bi morfema ageri dira adposizio egitura bizidunetan: batetik, *-n* morfemak Leku burua lexikalizatzen du, eta bestetik, *-a* morfemak Helburu burua:

(18) a. kale-ra

kale-ADL

b. zu-ga-n-a

zu-ERG-LOK-ADL

(Etxepare 2013: 72)

Egile honek dioenez, lekuzko adposizio bizidunetan, adposizio buruen gauzpen lexikoa berrantolatu egiten da.

Ablatiboazko egitura bizidunetan ere (*-ga-n-dik*) egoera bertsua aurkitzen dugu, *-n* morfemak Leku burua lexikalizatzen du eta *-tik* morfemak, berriz, Helburu eta Jatorri buruak. Goiko (18b) adibidean, Etxeparek bizidunetan ageri den *-ga-* morfema ergatiboazko morfemarekin lotzen du, lehenago Lakarrak (2005) azterbide historikorako egin duen bezala. Bestalde, Jacobsen (1977) eta de Rijkentzat (1984), *-ga-* + *-n* > *-gan* morfeman legoke inesiboazko morfemaren jatorria⁶ (Etxepare 2013: 72). Hortaz, *etxe-an* bezalako inesibo adposizio (bizigabe) batean, *-a-* morfema ez da determinatzailea batzuetan aztertu den bezala, ez bada *-ga-* horren arrasto morfologikoa.


Edonola ere, egitura bizidunok badute azaldu beharreko beste alderdi bat, alegia, zergatik ageri den leku morfema bakarra inesiboan (*-n*), eta, aldiz, bi lekuzko morfema adlatiboan (*-n* + *-(r)a*) eta ablatiboan (*-n* + *-tik*). Kontuan izan alderdi honi dagokionez, asimetria bat dagoela bizidun eta bizigabeen artean, bizigabeetan, ez baitago inesiboaren gauzpen morfologikorik adlatiboaren eta ablatiboaren adierazpenean.

Azalbidea ez da erraza. Nolanahi ere den, badirudi *-ga-* morfemak inesiboarekiko nolabaiteko dependentzia duela, hau da, biziduntasuna gauzaten laguntzen duela inesiboak. Intuizio hori formalki inplementatu nahian, ondorengo (19) zuhaitzean proposatzen dudanez, bizidunetako adlatibo eta ablatibo adposizioak sortzeko, ezinbestekoa da biziduntasuna (eta antzina ergatibotasuna) adierazten duen -

⁶ Santazilia (2013) azaltzen duenez, mendebaldeko lekukotasun zaharretan *-a* amaieradun hitzek inesiboa hartzean ez dute *-ea* disimilazioa gauzaten. Hortaz, *-a* + *-gan* elkarketako *-g-* disimilazio araua indargabetu ondotik galduko litzateke: **plaza-gan* > *plaza-an* (Santazilia 2013: 255).

ga- morfema lexikoki gauzatzea, eta hau gertatu ahal izateko, inesibozko morfemarekin bat egin beharra du:

(19)



Hortaz, euskarazko bizidunetako adlatiboa eta ablatiboa, inesibotik eratorritako adposizioak direla esan daiteke. Lehendabizi, [+BIZIDUN] balioa duen buruak inesiboaren beharra luke lexikalizatu ahal izateko (-*ga-* + *-n*). Biziduntasuna gauzatzea ahalbidetzen duen *-n* morfemaz gain, Helburu burua lexikalizatzen duen adlatibozko morfema ala Jatorri edo Iturburu burua lexikalizatzen duen ablatibozko morfema leudeke. Aurreko 2.2. atalean aipatu dudan tsezerak ere antzerako estrategia darabil, izan ere, Helburu ala Iturburu buruak lexikalizatzeko ezinbestekoa da inesibozko adposizioak Leku burua lexikalizatzea.

Bestalde, adposizio egitura bizidunetan Leku burua (*-n*) eta Helburu burua bakoitza bere aldetik lexikalizatzen direnean, Helburu buruaren forma *-a* da; adposizio egitura bizigabeetan, berriz, Leku eta Helburu burua batera lexikalizatzen direnean, burutzen den morfema *-ra* da. Orobat, bizidunetako ablatiboaren kasuan Leku burua eta Jatorri burua, bakoitza bere aldetik lexikalizatzen dira, eta *-tik* morfemak adierazten du Jatorri burua.

Amaitzeko, ablatibozko *-(r)ik* aldaera zaharra baliatuz sortu diren bizidunetako ablatiboek ere inesiboa duten oinarrian, nahiz eta Leku burua (*-n*) eta Jatorri burua (*-ik*) norbere aldetik lexikalizatu izan diren. Honen adibide dira Lazarragak darabilen *bereganik* (ca. 1567), Pouvreauk (1656) erabiltzen dituen *hareganik*, *Iainkoaganik* eta

gizonaganik aldaeren gisakoak, edota Gipuzkoako Misererean ageri den *niganik* (XVI m.) aldaeren gisakoak.

2.6. Tarteko ondorioak

Atal honetan erakutsi dudanez, Pantchevaren (2011) Bide Sintagmaren dekonposizioaren hipotesia eraginkorra da euskarazko lekuzko adposizioek duten hierarkia azaltzeko. Izan ere, oinarritzko hiru adposizioek (inesiboa, adlatiboa eta ablatiboa) lexikalizatzen dituzten buru sintaktikoak (Lekua, Helburua, Iturburu/Jatorria) zehazten ditu proposamen honek, eta gainera, Pantchevak (2011) proposatzen dituen Muga eta Eskala buruak baliagarriak dira euskarazko terminatiboak (muga adlatiboa) eta direkzionalak (hurbiltze adlatiboa) hierarkia honetan duten kokagunea argitzeko. Horrez gain, euskarazko Ardatz Zatiak ere ongi egokitzen dira proposatu dudan analisira.

Bestalde, euskal adposizioen aldakortasun dialektal eta diakronikoa argitzen ere lagun dezake. Batetik, egungo euskaran bereizten ez diren adposizioak ongi egokitzen dira proposamen honetara. Honen adibide dugu ablatiboaren ‘nondik’ eta prosekutiboaren ‘non(dik) zehar’ arteko bereizketa, mendebaldean Euskara Arkaikotik eta Euskara Modernora bitartera egin bide zena. Hemen proposatu dudanez, euskarazko prosekutiboak, dituen ezaugarriengatik, Pantchevaren Zehar/Bide burua lexikalizatu dezake. Bestetik, euskaraz terminatiboa eratzeko eta Muga burua lexikalizatzeko dauden aukera ugariak Pantchevaren (2011) analisiarekin bateragarri direla proposatu dut. Ohikoa den *-(d)ino* muga morfemaz gain, mendebaldean *arte* Ardatz Zatiak ere lexikalizatu dezake Muga burua, berariazko morfema mugatzailerik ageri ez bada. Zenbait kasutan, Ardatz Zatiaren eta morfema mugatzailearen baturak ere bete dezake funtzio hau, zubererazko *-lartio* forma da honen adibide.

Azkenik, Pantchevaren (2011) analisia baliatu dut euskarazko bizidunetako adlatiboa eta ablatiboa, inesibotik eratorritako adposizioak direla aurkezteko. Izan ere, [+BIZIDUN] tasuna adierazten duen buruak (*-ga-*), inesiboaren beharra du lexikalizatu ahal izateko (*-ga-* + *-n*).

3. Lekuzko adposizioak syntaxian: argumentu ala adjuntu?

Orain arte, Nanosyntaxia izan dut aztergai 2. atalean, lekuzko adposizioen arteko harremana eta hierarkia deskribatu ditut, eta horrez gain, erakutsi dut Pantchevaren (2011) analisia euskarazko adposizioen aldakortasuna azaltzeko egokia dela. Atal honetan, berriz, lekuzko adposizioek perpaus mailan betetzen duten funtzioa eta Aditz Sintagmarekiko (AS) duten harremana argitzeko saio bat egiten dut. Lehendabizi, oinarritzko kategoria gramatikalak deskribatzen dituzten zenbait lanetan (Huddleston & Pullum 2002, Baker 2003) adposizioek jasotzen duten sailkapenari erreparatuko diot, euskararako ere baliagarria den eztabaidatzeko. Ondoren, analisi sintaktikoa oinarri duten lanetan (Elordieta 2003) lekuzko adposizioek duten funtzioa aztergai izango dut, eta adposizioen hurrenkera sintaktikoa hizpide duten lan batzuei ere erreparatuko diet (Elordieta 2001, Arregi eta Ormazabal 2003, Fernández eta Ortiz de Urbina 2010), euskarazko adposizioek syntaxian duten edo izan ditzaketen funtzioen inguruko gogoeta egiteko.

3.1. Aurrekariak

Euskaraz aditz komunztadurak ergatibo, absolutibo eta datiboarekin egiten du komunztadura. Kasuaren eta rol tematikoaren arteko harremana ez da beti bat bera, hots, kasu berak ez du halabeharrez rol tematiko bakar bat islatu behar, baina ergatiboak egilea adierazi ohi du, absolutiboak gaia eta datiboak, osagarri bikoitzeko egituretan, hartzailea. Aditzarekiko komunztadura harremana dela eta, ergatibo, absolutibo eta datibo kasuek markatzen dituzten sintagmak argumentutzat hartu ohi ditugu gramatikan. Oso bestela, adposizioek, hala nola, lan honetan aztergai ditudan lekuzko adposizioek, hots, inesibo, ablatibo, adlatibo eta abarrek markatzen dituzten sintagmek ez dute aditz komunztadurarik eragiten, eta horregatik ez dira argumentutzat hartu izan. Hala, adposizio hauek ezartzen dituzten rol tematikoak, hala nola, lokatiboa, helburu bizigabea, eta abar, itxuraz, argumentuetatik aparte gelditzen dira. Nolanahi ere den, mugimenduzko aditzetan, beste batzuen artean, espazio aldaketak ulertzeko funtsezkoa den informazio gehigarria adierazten da sintagma adposiziodun hauen bitartez.

Beste alde batetik, komunztadurarik gabeko hizkuntzetan, hala nola, ingelesez, aditzaren argumentutzat hartzen dira zenbait PS. Esate baterako, *come, go, return > (to) somewhere* gisako mugimendu aditzetan. Hau oinarri hartuz, atal honetan eztabaidatuko dut ea euskaraz ere halako sintagmak argumentutzat hartu beharko genituzkeen edo ez. Izan ere, euskaraz aipatu mugimenduzko aditzez gain, transferentzia aditzetan (*eraman,*

ekarri) komuntadurak islatzen dituen argumentuetatik aparte (ergatibo, absolutibo eta datiboaz gain), aditzaren semantikak noranzkotasunaren inguruko informazioa argitzea eskatzen du, hots, nondik eta nora ere adierazi beharra dago, eta alde horretatik bederen, pentsa liteke argumentutzat ere hartu beharko genituzkeela.

3.1.1. Baker (2003): adposizioak adjuntu

Bakerrek (2003) proposatzen duenez, aldea handia dago ISen eta Adposizio Sintagmen (PSen) artean. Bere iritziz, ISak aditzaren ohiko argumentuak dira, eta PSak, aldiz, aditzaren adjuntuak dira. Dioenez, PSek Adjektibo Sintagmekin (AdjS) antzekotasun gehiago dituztela argudiatzen du ez sail batekoek, ez bestekoek ezin baitute osagarririk hartu. Honez gain, ISek erreferentziakide den izen, izenordain edo anafora bat izan dezakete perpausean; ez, ordea, AdjSek eta PSek:

- (20) a. $Jone_k$ eta $Mirene_k$ elkar $_{i+k}$ maite dute/ Idazlearen $_i$ aita $_k$ alaba $_{i/j}$ maite du. (IS)
 b. *Ura $_x$ ibaian $_i$ eta itsasoan $_k$ elkar $_{i+k/*x}$ dabil. (PS)
 c. *Alai $_i$ dago bere burua $_i$. (AdjS/AdbS)

AdjSetan gertatzen den bezala, PSek ere balio erresultatiboa adieraz dezakete, hau da, gai dira ekintzaren emaitza modifikatzeko. Honi dagokionez, balio modala adierazi nahi denean, ez dago alde handirik PSaren, AdjSaren, eta Adberbio Sintagmaren (AdbS) artean, Bakerren (2003) iritziz hiru kategoriek jokabide bertsua baitute:

- (21) a. I cut the bread thin. (AdjS)
 ‘Nik ogia xehe moztu dut.’
 b. I cut the bread into slices. (PS)
 ‘Nik ogia xerratan moztu dut.’
 c. I cut the bread slowly. (AdbS)
 ‘Nik ogia astiro moztu dut.’ (Baker 2003: 313)

Egile honek, bere lanean, adberbioak adjektiboen sailean sailkatzea proposatzen du, bi kategorien artean antzekotasun ugari daudela argudiatuz. Esate baterako, adjektiboek zein adberbioek kuantifikatzaile eta mailaketa-hitz berak eta egitura konparatibo berak hartzen dituzte. Euskarazko adberbio kategoriaren izaera aztertu duen C. Fernandezek (2021) ere, euskaraz gauza bera gertatzen dela zehazten du:

- (22) a. *very* proud (Adj) / *very* slowly (Adb)
 b. *oso* harro (Adj) / *oso* astiro (Adb) (C.Fernandez 2021:18)

Bakerren (2003) argudio hau, ordea, ezin daiteke PS guztietara zabaldu. Izan ere, PS egitura guztiek ezin ditzakete maila-hitz edo kuantifikatzaile hauek hartu. Honi dagokionez, Agirrek (2017) zehazten duenez, maila-hitzak hartzeko postposizioek ezinbestekoa dute leku-denborazko adberbioekin batera agertzea. Esate baterako, gramatikalak dira *oso urruti-ra*, *oso gertu-tik* edota *oso urrun-(e)tik* bezalakoak. Bestalde, ISekin batera agertzen diren adposizioek ezin dezakete kuantifikatzailearik hartu, **oso kalean* edo **oso iturritik*. Aipatutakoez gain, badira kuantifikatzaileak onartzen dituzten beste zenbait adposizio, osagarritzat Ardatz Zatiak dituzten adposizioak hain zuzen. Honen adibide ditugu *oso aurre-an*, *oso azpi-ra* eta *oso gain-(e)tik* bezalakoak.

Bestetik, aipatzekoa da mailakatzea edo gradueltasuna adierazteko gaitasuna AdjSri soilik egozten dion arren, PS mota batek ere antzeko jokabidea izan dezakeela (Baker 2003). Balio idiomatiko edo adierazkor berezia duten PSek, adibidez, mailakatzea adierazteko gaitasuna dute:

(23) a. John is as crazy as Mary is.

‘Jon Miren bezain zoroa da.’

b. John is too in love.

‘Jon oso maiteminduta dago.’

c. *John is as in the kitchen as Mary is

‘*Jon sukaldean Miren bezain dago.’ (Baker 2003: 313)

Adibide hauetan ikus daitekeenez, balio idiomatikorik ez duten lokatiboek ez dute mailakatzerik onartzen (23c). Hortaz, adjuntu izanagatik ere, PS batek lokatibotasuna adierazten duenean ez du Adjektibo Sintagma gisa jokatzeko.

Dena den, Bakerrek (2003) dioenez, honek ez du esan nahi PS guztiak ASren islapen berean sortu behar direnik. Esate baterako, (24a) perpausean bi PS ageri dira: lehendabizikoak, balio lokatiboa izateaz gain, ekintza baten emaitza adierazten du; bigarrenak, aldiz, balio lokatibo soila du:

(24) a. I put the bread on a plate in the kitchen.

‘Nik ogia plater batean jarri dut sukaldean.’

b. #I put the bread in the kitchen on a plate.

‘#Nik ogia sukaldean jarri dut plater batean.’ (Baker 2003: 320)

Adibide honek erakusten duenez, bi PSen hurrenkera aldatuz gero, perpausaren gramatikaltasuna ezbaian jartzen da. Bakerrek (2003) dioenez, bi PSak adjuntu diren arren, ekintzaren emaitza adierazten duen *on a plate* PSak aditzaren esanahiaren osaketan parte hartzen du, eta, hortaz, AdjeSak agertu ohi diren gunean kokatzen da. Bestetik, balio lokatibo soila duen PSa gorago sortuko da ASren egituran.

3.1.2. Huddleston eta Pullum (2002): aditzak zehazten du funtzio sintaktikoa

Bestalde, Huddleston eta Pullumek (2002) diote ingelesez oso ohikoak direla espazio aldaketak adierazten dituzten PS argumentu zein PS adjuntuak. Egile hauen iritziz, aditzaren izaerak zehazten du perpauseko PSaren funtzioa. Honi dagokionez, nolabaiteko espazio aldaketa adierazten duten mugimendu aditzek ('joan', 'etorri', 'bidali', etab.) eta kokalekua adierazten duten aditz batzuek ('izan', 'egon', 'gertatu') PSak izan ditzakete osagarritzat (ing. *complement*). Izan ere, PSek zehazten dute aditz hauek adierazi beharreko informazio garrantzitsuena, hau da, ekintza non gertatzen den ala nondik norako mugimendua gertatu den. Aldiz, beste aditz askorentzat PSak ez dira funtsezkoak oinarrizko informazioa adierazteko. Kasu hauetan aukerakoa da PSen presentzia eta oinarrizkoa ez den informazio gehigarria adierazi ohi dute perpausuan.

Huddleston eta Pullumek (2002) zehazten dutenez, lokatibozko PSa da espazio harremanak adierazteko erabiltzen den oinarrizko egitura. Lekuzko PSak kokalekua adierazten duten aditzen osagarri izan daitezke (25). Horrez gain, espazio informaziorik adierazten ez duten gainerako aditzen adjuntu ere izan daitezke (26). Hona hemen egileek aurkezten dituzten zenbait adibide:

(25) PSak aditzaren osagarri:

a. The stew is in the oven.

'Gisatua labean dago.'

b. The accident occurred at the corner.

'Istripua kale izkinan gertatu zen.' (Huddleston & Pullum 2002: 680)

(26) PSak aditzaren adjuntu:

a. We had breakfast in the kitchen.

(Lit.) Guk gosaria hartu genuen sukaldean.

'Guk sukaldean gosaldtu dugu.'

b. I read the report at home.

'Nik etxean txostena irakurri nuen.' (Huddleston & Pullum 2002: 680)

Egile hauek diotenez, bada aditzaren osagarri diren PSak adjuntuetatik bereizten dituen garrantzizko ezaugarri bat. Goiko (25a) eta (25b) adibideetan ageri diren PSak ezabaezinak dira, funtsezkoak baitira perpausean; **The stew is* ‘*gisatua dago’ eta **The accident occurred* ‘*istripua gertatu zen’ gisako perpausak ez dira gramatikalak. Bestalde, perpauseko aditzarekin lotura estua badute ere, (26a) eta (26b) adibideetako PSak ez dira ezinbestekoak, eta perpausak gramatikalak dira PSak isilduta ere (*in the kitchen* eta *at home*, hurrenez hurren): *We had breakfast* ‘gosaria hartu dugu’, *I read the report* ‘txostena irakurri dut’ (Huddleston & Pullum 2002: 681). Nire proposamenean, 3.3. atalean, aditzaren argumentu direla adierazten dut.

Bestalde, espazio aldaketa adierazten duten perpausetako PSak mugimendu aditzaren osagarri izan ohi dira, perpaus iragangaitzetan bederen. Huddleston eta Pullumen (2002) hitzetan, bi kokaleku ematen dira aditzera perpaus hauetan, abiapuntu bat eta helmuga bat. Abiapuntua adierazten duen PSari *Iturburu* deritzote, helmuga adierazten duen PSari berriz, ‘Helburu’. Gainera, kasu batzuetan tarteko kokaleku bat, edo bat baino gehiago, adieraz daitezkeela aipatzen dute, honi *Bidea* (ing. *path*) deritzote. Mugimendu aditzetan PS hauek guztiek osagarri funtzioa betetzen dutela zehazten dute, honako adibideetan erakusten duten bezala:

(27) a. Kim put the key under the mat.

‘Kimek giltza alfonbra azpian jarri zuen’ / ‘alfonbra azpira mugitu zuen.’

b. John ran from the attic to the kitchen.

‘Jonek ganbaratik sukaldera lasterka egin zuen.’

c. I drove from school through the tunnel to the station.

‘Nik eskolatik tunelean barrena geltokira gidatu nuen.’

Ikus daitekeenez, (27a) perpausean PS bat baino ez da ageri, Helburua⁷ adierazten duen *under the mat*. Honez gain DS bat ere ageri da perpausean, *the key*. Egile hauek zehazten dutenez, aditzaren osagarri dira biak ala biak, *put* aditzak beharrezko baitu ezinbestean bi sintagmak agertzea. Hurrengo adibidean (27b), bi PS ageri dira, Iturburu, *from the attic*, eta Helburua, *to the kitchen*. Azkeneko perpausean (27c), berriz, aurreko PSez gain, hirugarren bat ageri da, hots, *Bidea*, *through the tunnel*. Egileek argudiatzen dutenez, aipatutako guztiek osagarri funtzioa dute, espazio aldaketa adierazten duten PS guztiak baitira mugimendu aditzaren osagarri. Kasu honetan ere

⁷ Ingeleseaz *under* preposizioak Lekua adierazi ohi duen arren, kasu honetan Kimek giltza puntu jakin batetik alfonbra azpira lekualdatu zuela adierazten du.

hirurak aditzaren osagarriak lirateke (Huddleston & Pullum 2002: 680). Osagarri zuzen eta zehar osagarriaz bestelako aditzaren argumentuak direla proposatzen dut nik.

Orain arte aipatuko PS motez gain, mugimenduaren noranzkoa adierazten duten PS egiturak ere mugimendu aditzen osagarri direla zehazten dute:

(28) She ran towards the house.

‘Neskak lasterka egin zuen etxerantz.’ (Huddleston & Pullum 2002: 680)

Zentzu honetan, espazio aldaketa adierazten duten PS guztiak mugimendu aditzen osagarri direla zehazten dute Huddleston eta Pullumek (2002). Esate baterako, *send* ‘bidali’ gisako aditz baten osagarri lirateke aditz honen oinarrizko informazioa (‘nondik’ eta ‘nora’, besteak beste) argitzen duten PSak. Aldiz, lokatibozko PS batek kokaleku finkoa adierazten du, eta hau ez da mugimendu edo transferentzia aditz baten oinarrizko informazioa. Horrenbestez, lokatibozko PSa adjuntua litzateke kasu horretan.

Espazio harremanekin zerikusia duten PS egiturez haratago, egitura jakin batzuei lotuta gramatikalizatu eta balio lokatiboa galdu duten adposizioek ere aditzaren osagarri funtzioa dutela zehazten dute egileek. Hona hemen zenbait adibide:

(29) a. She laughed at me.

‘Neskak nitaz barre egin zuen.’

b. My copy differs from yours.

‘Nire kopia zure kopiatik ezberdintzen da.’

c. Do you believe in yourself?

‘Zugan sinesten duzu?’ (Huddleston & Pullum 2002: 654–658)

Adibide hauek erakusten dutenez, perpaus hauetako PSeK ez dute Leku ala Iturburu baliorik adierazten eta aditz jakin hauekin batera baino ez dira jasotzen.

Laburbilduz, Huddleston eta Pullum (2002) proposamenean, PSak aditzaren argumentu ala adjuntu ote diren erabakitzeke erabiltzen den irizpidea ezinbestekotasuna da. Kokalekua adierazten duten aditzentzat eta mugimendu aditzentzat ezinbestekoa da gertaerak espazioan nola kokatzen diren zehaztea, eta lekuzko PSak dira informazio hau emateaz arduratzen direnak. Gainerako aditzentzat informazio hau adieraztea ez da beharrezkoa. Hortaz, lekuzko PSak adjuntu funtzioa izaten dute, oinarrizkoa ez den informazioa adierazten baitute.

3.2. Lekuzko adposizioak argumentu egituran

Lekuzko adposizioek lan biotan jasotzen duten analisia aztertu ondoren, berariaz euskarazko analisi sintaktikoan oinarritzen diren lanei begiratuko diet jarraian. Lehenik eta behin, Elordietak (2003) moduzko adberbioak aztertzerakoan postposizioentzat proposatzen duen analisia hartuko dut aintzat (3.2.1). Ondoren, 3.2.2. atalean, AS mailan lekuzko adposizioek duten kokapena zehaztu nahian, Helburuaren eta Onuradunaren sorburu partekatuaren proposamena izango dut hizpide. Proposamen hau gainerako adposizioak aztertzekeo lagungarri izan daitekeen eztabaidatuko dut.

3.2.1. Elordietak (2003): adberbioak eta postposizioak sintaxian

Elordietak (2003) moduzko adberbioen analisian zehazten duenez, mota desberdinetako adberbioek kokagune desberdinak erakusten dituzte, eta, gainera, hautazkoak diren adberbioak, nahitaezkoak diren adberbioetatik bereiz daitezke. Adberbioekin⁸ gertatzen den bezala, gauza bera gertatzen da postposizioekin ere. Honi dagokionez, aditzak lexikoki hautatzen ez dituen adberbioek sintaktikoki adjuntu gisa jokatzeko dutela zehazten du Elordietak (2003), eta hau adberbio balioa duten P Sintagmetara ere hedatzen da:

- (30) a. Josebak ariketak (oso gaizki) egin ditu.
b. Gure aitak (apurka-apurka / akademian) ingelesa ikasi du.
c. Josebak ariketak (oso gaizki) egin ditu. (Elordietak 2003: 210)

Adibide hauetan parentesi artean ageri diren adberbioak hautazkoak dira, aditzaren argumentu egitura osatzeko informazioa gaineratzen duten arren, ez baita beharrezkoa, gehigarria baizik (Elordietak 2003: 210). Hauek ez bezala, (31)n jaso diren adberbio eta postposizioak nahitaezkoak dira, aditzak eskatzen ditu-eta:

- (31) a. Edurne *(hemen) geldituko da. (PS)
b. Jonek bere lagunak *(gaizki) tratatzen ditu. (AdbS)
c. Zure amona *(dotore) janzen da. (AdbS) (Elordietak 2003: 210)

Adibide hauetatik parentesi artekoa kenduz gero, perpausak osatzeke geldituko lirarteke. Beraz, ez dirudi honako hauek (30)eko adjuntuen ezaugarri berak dituztenik, osagarri izaera baitute.

⁸ Atal honetan 'adberbio' hitza erabiliko dut Elordietak (2003) berak hala egiten duelako. Dena den, ez dago argi adberbioek kategoria beregaina osatzen dutenik, eta azken proposamenetan (C. Fernández 2021) beste kategoria batzuekin sailkatzea proposatu da.

Bereizketa hau azaltzeko, aurretiaz Alexadiouk (1997) *espezifikatzaile-adberbioen* (ing. *specifier-type adverbs*) eta *osagarri-adberbioen* (ing. *complement-type adverbs*) artean egiten duen bereizketa dakar gogora Elordietak. Alexadiouk (1997) zehazten duenez, osagarri-adberbioak aditzaren eskuinetara sortuko lirateke, AS barnean, eta ez legoke inongo alderik adberbio hauen eta DS argumentuen artean. Gainera, islapen funtzionaletara mugitu behar izan ezean, adberbio hauek ez dira ASTik kanpo mugitzen ohiko baldintzetan. Beraz, proposamen honetan oinarrituz, aditzaren osagarri diren lekuzko adposizioek ere sorburu bertsua izatea espero da.

3.2.2. Helburuzko adposizioa eta datibo onuraduna: sorburu bera?

Lekuzko adposizioen artean, adlatiboak Helburua adierazten duela zehaztu dut 2. atalean. Adlatiboak, beraz, Helburu rola duela esan daiteke, helmuga edo amaiera puntu bateranzko mugimendua adierazten baitu. Dena den, adlatiboaz gain, datiboak ere adieraz dezake Helburu rola egoera jakin batzuetan:

(32) a. Taxi bat eskatu dizut.

b. Dirua eskatu dizut. (Fernández & Ortiz de Urbina 2010: 177)

Honako (32a) adibidean, *zuri* implizitua eskaeraren helburua zein onuraduna izan daiteke. Izan ere, *zu* horrek taxi konpainiako langile bat adieraz dezake, eta kasu honetan, eskaeraren helburutzat hartuko dugu, *nora* eskatu den alegia. Beste aukera bat izan liteke *zu* horrek taxi baten zain dagoen laguna adieraztea, eta honela bada, errazago interpretatu liteke *zu* onuradun gisa (*zuretzat*). Antzera gertatzen da (32b)n ere, *zu* hori dirua duen laguna bada, eskaeraren helburua izango da. Aldiz, nik dirua beste bati eskatu badiot gero *zuri* emateko, orduan *zu* azken hartzailea (ing. *intended recipient*) izango zara, onuraduna azken batean (Fernández eta Ortiz de Urbina 2010: 177).

Adlatiboaz gain datiboak ere Helburu rola adieraz dezakeela aintzat hartuz, Arregi eta Ormazabalek (2003) datiboa bestelako postposizio sintagmekin alternantzian dagoela proposatzen dute:

(33) a. Mirenengana liburua bidali dut.

b. Mireni liburua bidali dut.

(34) a. Mirenentzat opari bat prestatu dugu.

b. Mireni opari bat prestatu diogu. (Arregi & Ormazabal 2003: 121)

Diotenez, (33a) perpausean bizidunetako adlatiboak eta (33b) perpausean datiboak adierazten duten erlazio tematikoa berbera da, Helburua hain zuzen. Helburua

adierazteko alternantzia gain, onuraduna adierazteko ere postposizio baten eta datiboaren arteko alternantzia topatzen dute, (34a)n erabiltzen den destinatiboak eta (34b)ko datiboak erlazio tematiko berbera adierazten baitute.

Urrats bat haratago joanez, Arregi eta Ormazabalek (2003) datiboak sintaktikoki onuradunetarik eratoritzen direla proposatzen dute, adposizioak datibo bihurtzeko prozesu zabalago baten barruan. Proposamen hau egiteko Bakerren (1988) *UTAH* (ing. *Uniformity of Theta Assignment Hypothesis* edo *Theta Ezarketaren Berdintasunaren Hipotesia*) hatsarrean oinarritzen dira: “biek erlazio tematiko berberak adierazten dituztenez, erlazio hauek errepresentazioaren mailan egitura berbera ere partekatu behar dute.” (Arregi & Ormazabal 2003: 125).

Zentzu honetan, sortzezko egituren argumentuek duten hurrenkera Gaia > Helburua/Onuraduna dela proposatzen dute. Postposizio egiturek jatorrizko hurrenkera honi eusten diote, baina datibozko egiturek hurrenkera *eratorria* erakusten dutela diote (Helburua/Onuraduna > Gaia), Helburua/Onuraduna goragoko gune batera mugitzen dela proposatuz (Arregi & Ormazabal 2003: 125).

Dena den, Oyharçabalek (2007) adierazten duen bezala, zilegi da perpaus berean datiboa eta onuraduna aldi berean agertzea (35a), bai eta datiboa eta helburuzko adposizioa perpaus berean agertzea ere (35b):

- (35) a. Joni bixkotxak egin dizkiot bere haurrentzat. (Oyharçabal 2007)
b. Amari opilak etxera eramán dizkiot.

Gainera, Helburua ez ezik, Iturburua ere adieraz dezake datiboak kasu bakan batzuetan. Fernández eta Ortiz de Urbina (2010) zehazten dutenez, gaiaren iragaite edo transferentzia, kontrako norabidean gerta daiteke, *kendu*, *hartu* eta *atera* gisako aditzekin batez ere. Kasu hauetan, hiztunak *nori hartu* ala *nori kendu* dioenean, Iturburua zehazten du, *nondik* hartzen duen alegia. Iturburua da (36)ko perpausoko datiboak duen irakurketetako bat:

- (36) Mikeli loteria erosi diot. (Fernández & Ortiz de Urbina 2010: 177)

Batetik, ondoriozta daiteke Mikel loteria saltzailea dela eta hiztunak loteria berari erosi diola. Kasu honetan *Mikeli* Iturburua litzateke. Alabaina, Mikel loteriaren azken hartzailea ere izan daiteke, eta kasu horretan onuraduna litzateke (Fernández & Ortiz de Urbina 2010: 177).



Hala eta guztiz ere, Fernández eta Ortiz de Urbinak (2010) ez dute uste datiboaren eta ablatiboaren (Iturburua) arteko alternantzia hau sistematikoa denik. Izan ere, interes/jabetza loturaren barruan interpreta daitezkeen egiturak baino ezin daitezke postposizio sintagma zein datibo sintagma gisa gauzatu. Gustuko ditugun gauzak, giza erlazioak eta ondasunak markatu ohi dira datibo bidez, ondoko adibideek erakusten duten bezala:

(37) a. Semea Ameriketara joan zitzaidan.

b. Giltza ahaztu zait. (Fernández & Ortiz de Urbina 2010: 25)

Lehendabiziko (37a) adibidean, hiztunaren semea baita joan zena. Kasu honetan *niri* inplizituak Iturburutik, *aitarengandik/amarengandik*, joan zela adierazten du. Ondorengo (37b) adibidean, ahazten denak ez du zertan hiztunarena izan behar, baina gertaerak zerikusi estua du hiztunarekin, izan ere, giltza norberarena izan daiteke ala norberak ekarri beharrekoa, *norbera zegoen tokitik* (Fernández & Ortiz de Urbina 2010: 25). Beraz, jabetza eta interesa adierazten duten datiboek haratago, ez dirudi datiboak eta lekuzko adposizioek adierazten dituzten rola alternantzian daudenik.

Bestalde, beste zenbait proposamenetan, Pylkkänenen (2008) eta Ormazabal eta Romerorenean (2010), datiboa Helburuarekin ez ezik, Iturburuarekin ere alternantzian dagoela iradoki da, eta hau azaltzeko aplikatibo geruzak bereizi dituzte. Esaterako, Ormazabal eta Romerok diotenez, ingelesezko osagarri bikotzeko egiturek (*Sara gave Mateo the book*) eta preposizio bidezko *to*-egiturek (ing. *to-constructions*) (*Sara gave the book to Mateo*) sortzeko egitura bera partekatzen dute. Sortzeko egitura honetan, PS egitura bat inkorporatzen zaio aditzari. Ormazabal eta Romeroren hitzetan, PS egitura honek DS osagarria eta lekuzko/datibozko PSa barnebiltzen ditu. Sintagma honetan, gaia adierazten duen DSak, Helburua (ala ageri den lekuzko adposizioa) o-komandatzen du, (38) egituran ikus daitezkeen bezala. Bestetik, (39)n euskarazko egitura litzatekeena eman dut.



(Ormazabal & Romero, argitaragabea: 7)

Proposamen honen arabera, sorburu bera lukete datiboak eta espazio aldaketa (ing. *change of location*) adierazten duten lekuzko adposizioek. Hau da, Helburua lexikalizatzen duen adlatiboak ez ezik, Iturburu lexikalizatzen duen ablatiboak ere jatorri bera lukete. Aipatutakoez gain, espazio harremanak adierazten dituzten ingelesezko beste zenbait preposizio, *at* eta *behind* esaterako, gune berean sortuko lirateke egile hauen arabera. Hau honela izanez gero, Lekua lexikalizatzen duen inesiboa eta Ardatz Zatiak ere gune honetan kokatu beharko lirateke euskaraz. Dena den, datiboa eta onuraduna perpaus berean ager daitezkeela ikusi dugu (35a)n, baita datiboa eta adlatiboa ere (36b). Gainera, Huddleston eta Pullumek (2002) adierazten dutenez, espazio aldaketa adierazten duten PS guztiak mugimendu aditzen osagarri dira eta perpaus berean bat baino gehiago ager daitezke elkarren jarraian (*from the attic to the kitchen*).

Honez gain, Helburu eta Iturburu adposizioen arteko hitz hurrenkeran asimetria azal dezakeen analisi bat behar da. Asimetria honek islatzen duenez, gaiaren eta aditzaren artean kokatu ohi da Helburua; *ogia ahora eraman* esaterako. Iturburu, aldiz, gaiaren ezkerretara ageri ohi da, aditzetik urrunago; *menditik loreak ekarri* esate baterako. Hau sakonago landuko dut 4. atalean, bai eta 5. ataleko esperimentuan ere.

Laburbilduz, Fernández eta Ortiz de Urbinak (2010) egiten duten proposamenean zehazten denez, ez legoke datiboaren eta lekuzko adposizioen arteko alternantzia sistematikorik, izan ere, funtzio sintaktiko desberdinak adierazi ohi dituzte. Dena den, interesa eta balio afektiboa adierazten duten datiboak aipatzen dituzte salbuespen gisa, datibo hauteako askok Iturburu ala Helburu gisa jokatzeko baitute. Aldiz, Arregi eta Ormazabal (2003) eta Ormazabal eta Romeroren lanetan, datiboa eta lekuzko adposizioak alternantzian daudela zehazten da, biak ala biak aditzari inkorporatzen zaion PS egitura batean baitute sorburua. Gainera, analisi honetan, lekuzko adposizio guztien sorburua aditzaren osagarri gunean inkorporatzen den PS egituran legoke. Beraz, proposamen hau osagarri bikoitzeko egituren eta datiboaren arteko harremana argitzeko erabili bada ere, nire proposamenean lekuzko adposizioak eta datiboak sorburu ezberdinak dituztela aurkeztuko dut. Izan ere, perpaus berean aurki daitezke Helburuzko adposizio sintagma eta datiboak markatzen duen DS argumentuak.

3.3. Lekuzko adposizioen analisisa sintaxian

Euskaraz aditzaren argumentu izan daitezkeen lekuzko adposizioak zehaztu ondoren, perpaus mailan⁹ gainerako argumentuekiko duten kokapena argitzeko saio bat egingo dut atal honetan. Lehenik eta behin, aditz iragangaitzetan duten kokapena izango dut hizpide eta ondoren, aditz iragankorretan ageri dena landuko dut.

Perpaus iragangaitzetan, aditzaren argumentu diren bi motatako adposizioak aurki daitezke, kokalekua zehazten duten adposizioak, batetik, eta espazio aldaketa adierazten duten adposizioak bestetik. Kokalekua zehazten duen adposizioa inesiboa da eta *izan* eta *egon*, gisako aditzen argumentu izan ohi da. Dena den, analisi honetan ez ditut aintzat hartuko inesiboa erabiliz eratzen diren predikatu osagarriak, hala nola, *haserre bizian egon* gisakoak, berariaz Lekua zehazten duten inesiboak baitira nire aztergaia. Ildo honetan, Lekua zehazten duten adposizioak aditz iragangaitz sail honen osagarri gunean sortzen direla proposatzen dut, (40) zuhaitzean ikus daitezkeen bezala. Aditzarekiko komunztadurarik adierazten ez duten arren, oinarrizko informazioa adierazten dutenez, argumentu gisa jokatzeko dutela esan daiteke, perpausa ez-gramatikala baita hauek agertu ezean, **Jon dago*, kasu. Jakina denez, aditzaren argumentu izateaz gain, Lekua zehazten duten adposizioek adjuntu gisa ere joka dezakete perpaus iragankorretan, *jatetxean izokina eskatu nuen* perpausaren, esate


⁹ Atal honetan lekuzko adposizioek duten sortzezko egitura aurkeztuko dudanez, AS barneko analisisira mugatuko naiz eta ez dut InFlS mailan erakusten duten egitura eratorria adieraziko.

baterako. Kasu hauetan, PSa beste aditz sintagma oskol baten espezifikatzaile gunean sortzen dela aldarrikatzen dut.

Gisa berean, espazio aldaketa adierazten duten adposizioak mugimendua adierazten duten aditz iragangaitzen argumentu dira. Sail honetako aditzak dira *joan*, *etorri*, *mugitu*, *abiatu* bezalakoak, baita *igo*, *jaitsi*, *sartu*, *atera* gisakoak, irakurketa iragangaitzean. Gainerako lekuzko adposizio guztiak izan daitezke aditzaren argumentu; adlatiboa (Helburua), ablatiboa (Iturburua) eta hauetatik eratortzen diren direkzionala (Eskala) eta terminatiboa (Muga), behinik behin. Hona hemen perpaus iragangaitz hauetarako proposatutako sortzezko egitura (41):

(40) Ane sukaldean dago.

(41) Ane iturrira doa.




Honako bi adibide hauek erakusten dutenez, lekuzko adposizioek analisi bera lukete lokatibozko aditzen nahiz mugimendu aditz iragangaitzen argumentu direnean. Mugimendu aditz iragankorren kasuan, berriz, espazio aldaketa adierazten duten adposizioez gain, beste argumentu bat ageri ohi da gutxienez, DS osagarria (Gaia). Kasu honetan ere, zehaztu beharra dago aditzaren nolabaiteko argumentu izatez gain, adjuntu gisa joka dezaketela perpaus iragankorretan, *etxetik lagunak agurtu ditut* perpausean, esaterako.

Argumentutzat lekuzko adposizioak dituzten aditz iragankorrek ere mugimendu aditzen sailekoak dira. Esate baterako, *eraman*, *ekarri*, *bidali*, *jaurti* ditugu sail honetako aditzak, baita *igo*, *jaitsi*, *sartu*, *atera* gisakoien irakurketa iragankorra. Kasu hauetan, AS barnean adposizioek eta DS osagarriak duten kokapena zehaztu beharra dago. Euskaraz adposizio eta osagarrien arteko hurrenkera nahiko malgua da. Nolanahi

ere den, aditzetik hurbilen dagoen osagarri gunean DSa sortzen dela proposatu izan da (Elordieta 2001). Nik ere honi eutsiko diot, bi irizpidetan oinarrituz. Batetik, esan beharra dago euskaraz DS absolutiboa dela aditzarekiko komunztadura adierazten duen elementua, eta bestetik, ez dirudi DSaren eta adposizioen ezinbestekotasuna maila berean daudenik. Esate baterako, *Jonek zapia atera du* eta *Anek oparia darama* perpausak onartuko genituzke, nahiz eta bere osotasunean ulertzeko lehengoko Iturburua eta bigarreneko Helburua argitzea komeni den. Aldiz, **Jonek poltsikotik atera du* eta **Anek etxera darama* ez gramatikalak dira gaia adierazi ezean. Lekuzko adposizioak, beraz, ASren espezifikatzailean sortzen diren argumentuak direla proposatuko dut, zehar osagarria eta osagarria zuzena baino gorago:

(42) Aitak menditik loreak dakartza.

(43) Aitak gutuna etxera bidali du.



Honako (42) adibideak, lekuzko adposizioen eta osagarriaren artean espero den hurrenkera erakusten du. Iturburua lekukotzen den perpaus iragankorretan hitz hurrenkera hau espero da. Oso bestela, Helburua jasotzen den perpaus iragankorretan, Gaia Helburuaren aurretik agertu ohi da. Honen atzean, Helburuaren eta Iturburuaren arteko asimetria egon daiteke. Helburuak eta Iturburuak mugimendu aditzen inguruko oinarritzko informazioa adierazten dute, espazio aldaketa zehazten laguntzen duena. Dirudienez, mugimendu aditzek Helburuzko adposizioa ere argumentua dela adierazteko beharra handiagoa dute –asimetria hau sakonago landuko dut 4. eta 5. ataletan–. Aditzek adposizioekiko komunztadura adierazten ez dutenez, hitz hurrenkera aldatzea izan daiteke Helburua nabarmentzeko baliabide bat. Aditzak DS osagarriarekiko komunztadura adierazten duenez, DSa aSren espezifikatzaile mugi daiteke, Helburua eta aditza elkarren jarraian egongo dira horrela.


Azkenik, espazio aldaketa adierazten duten adposizioen aldiberekotasuna ere argitu beharra dago. Oro har, batera agertu ohi diren adposizioak Iturburu (mugimenduaren jatorria) eta Helburua (helmuga) dira, eta aldiberekotasun hau mugimendu aditz iragangaitz zein iragankorretan jasotzen da. Gainera, bi adposizio hauek hurrenkera jakin bat erakusten dute beti, espazio aldaketaren noranzkoa adierazten baitute: Iturburu > Helburua. Hurrenkera horretan beste argumenturen bat tartekatzea ez da ohikoa izaten, (44b) ikus daitekeen bezala:

(44) a. Garraiolariak abarketak Mauletik Baionara daramatza.

b. ??Garraiolariak Mauletik abarketak Baionara daramatza.

Lehendabiziko perpausa (44a) gramatikala dela argi ikusten den arren, (44b)k erakusten duen hitz hurrenkera ez da horren gardena, gaia Iturburu eta Helburuaren artean ageri baita. Hortaz, bi adposizioek espazio aldaketaren bidea zehazten dutenez, biak ala biak ASren espezifikatzailean sortzen direla proposatzen dut, (45)n ikus daitekeen bezala:

(45) Errekatik etxera ura eraman.



Bi adposizio hauen arteko hierarkian Helburua da bien artean oinarrizkoena, eta asimetriak zehazten duenez ere, mugimendu aditzek hitz hurrenkeran Helburu funtzioa aditz burutik hurbilago islatzeko joera dute. Hortaz, ASren espezifikatzailean Helburuzko adposizioa atxikitzen dela proposatzen dut. Ostean, gaia adierazten duen DSak aditzarekiko komuntadura adierazten duenez, egituran gorantz mugi liteke.

3.4. Tarteko ondorioak

Atal honetan zehaztu dudanez, lekuzko adposizioen eta aditzaren artean komuntadurarik adierazten ez den arren, kokalekua eta mugimendua zehazten duten aditzetan, lekuzko adposizioek oinarrizko informazioa adierazten dute eta, hortaz, aditzaren argumentutzat hartu ditut. Horrez gain, kasu batzuetan datiboaren eta lekuzko

adposizioen arteko rolak hurbil dauden arren, datiboak ez ditu, oro har, Helburu eta Iturburu rolak adierazten. Dena den, ñamardura pare bat aipatzea komeni da, izan ere, 3.2.2. atalean adierazi bezala, jabe datiboek eta interes datiboek Helburuzko eta Iturburuzko adposizioen jokabide bertsua dute zenbait kasutan. Esate baterako, *umea amari negarrez joan zaio* gisako perpaus batean, *amak* mugimenduaren azken Helburua adierazten du, eta *umeari hagina erori zaio* perpausean berriz, *umea* bera espazio aldaketaren Iturburua dela esan genezake.

Analisi sintaktikoari dagokionez, kokapenezko eta mugimenduzko aditz iragangaitzetan lekuzko adposizioak aditzaren osagarri gunean sortzen direla proposatu dut. Ostera, beste argumenturen bat (ala bi) ageri denean, argumentu hau izango da aditzaren osagarri gunean sortzen dena, eta lekuzko adposizioak aditzetik urrunago sortuko lirateke, ASaren espezifikatzailean, zehar osagarriaren eta osagarri zuzenaren gainean. Izan ere, kasu hauetan, lekuzko adposizioak absolutiboaz eta datiboaz bestelako argumentuak direla proposatu dut.

4. Helburuaren eta Iturburuaren arteko asimetria

Aurreko atalean (3.) aurreratu dudana bezala, Helburuaren eta Iturburuaren arteko hierarkiak eragina du sintaxi mailan. Helburu rola Iturburu rola baino oinarrizkoagoa da eta mugimendu aditzak argumentutzat Helburua duela adierazteko behar handiagoa du. Egile batzuentzat (Nam 2004, Vietri 2020), Helburua baino ez litzateke mugimendu aditzen argumentu eta hau hainbat hizkuntzako adibideen bidez argudiatzen dute. Atal honetan, beraz, beste hizkuntzetan aurkeztutako ebidentziek euskararako balio duten aztertuko dut.

4.1. Asimetriaren aldeko oinarri tipologikoak

4.1.1. Nam (2004, 2012): mugimendu aditzak eta adposizioen argumentu izaera

Namek (2004, 2012) Lekuzko adposizioak hierarkia semantiko eta sintaktiko jakin bati jarraituz antolatzen direla argudiatzen du. Egile honen ustez, perpauseko mugimendu aditzaren eduki semantikoak, lekuzko adposizioak hierarkia sintaktikoan duen lekua baldintzatzen du. Honi dagokionez, Helburu adposizio baten eduki semantikoa ezinbestekoa da ASen semantikarentzat, ez, ordea, Iturburu adposizio batena. Hortaz, printzipioz sintaktikoki ere Helburu adposizioa Iturburu adposizioa baino hurbilago egongo da aditzetik (Nam 2012:474).

Namek dioenez, ingelesezko Helburu eta Iturburu adposizioak ASren bi gune ezberdinetan sortuko lirateke: batetik, Helburu adposizioak ASren barne argumentu gisa sortuko lirateke, eta bestetik, Iturburu adposizioak ASren adjuntu gisa sortuko lirateke. Hortaz, Helburu adposizioek aditzarekiko lotura estuagoa lukete, eta ez lukete Iturburu adposizioek adinako mugimendu gaitasunik, bi adposizioen arteko asimetria adieraziz:

(46) a. John swam to the boat.

Jon igeri_egin. IRGN P. HELB DET txalupa

‘Jonek txalupara egin zuen igerian.’

b. John swam to the boat from the beach.

Jon igeri_egin. IRGN P. HELB DET txalupa P. ITUR DET hondartza

‘Jonek hondartzatik txalupara egin zuen igerian.’ (Nam 2012: 478)

Beraz, Namen (2004) iritziz, Iturburu adposizioak ASren modifikatzaile lirateke, eta Helburu adposizioak, aldiz, perpauseko aditzaren argumentu. Hala eta guztiz ere, Namek (2004) aurkezten duen proposamenak badu ahulgune bat, aurkeztutakoa ez baita mugimendu aditz guztietan betetzen. Mugimendu aditzen artean, Helburu orientazioa duten aditzak eta Iturburu orientaziodun aditzak bereiz daitezke. Helburu orientazioa duten aditzek, *joan, bidali, jaurti* esate baterako, helmuga edo amaiera puntu bateranzko mugimendua adierazten dute. Hortaz, pentsatzekoa da aditz hauek Helburuzko adposizioak dituztela argumentutzat.

Bestalde, Iturburu orientazioa duten aditzek, abiapuntu batetik urruntzeko mugimendua adierazten dute, honen adibide dira *atera, irten* eta *jaso* besteak beste. Kasu honetan ez dirudi Helburuzko adposizioak aditzaren argumentu izan daitezkeenik. Aditzok entzutean hiztunari sortzen zaizkion galdera ohikoenak *nondik irten* eta *nondik jaso* gisakoak dira, ezohikoagoak dira berriz, *nora atera* edo *nora jaso* bezalakoak. Beraz, Iturburu orientaziodun aditzek argumentutzat adposiziorik izatekotan, Iturburu adierazten duten ablatibozko adposizioak lirateke. Dena den, 3.1.2. atalean ikusi dugunez, Huddleston eta Pullumek (2002) aurkezten duten ikuspuntu zabalago batean, espazio aldaketa adierazten duten adposizio guztiak lirateke aditzaren argumentu.

Bigarrenik, Namek (2004) ingelesezko *ezkerreratzean* (ing. *left dislocation*) eta topikalizazioan aurkitzen du Helburu eta Iturburu adposizioen asimetriaren aldeko ebidentzia. Iturburu adposizioek ezkerrerantz dislokatu eta topikalizatzea onartzen dute (47a); Helburu adposizioek, aldiz, ez dute mugimendu hau onartzen (47b). Horrek

iradokitzen du mugimendu aditzen argumentu egituran helburu adposizioak aditzaren burutik hurbilago daudela, eta honenbestez, argumentu izaera dutela:

- (47) a. From Los Angeles, John sent the letter to Chicago.
 PREP.ITUR Los Angeles, John bidali.IRGN DET ezkutitz PREP.HELB Chicago
 ‘Los Angelesetik, Jonek Chicagora bidali zuen eskutitza.’
 ‘Los Angelesetik bidali zuen Jonek ezkutitza Chicagora.’
- b. ?? To Chicago, John sent the letter from Los Angeles.
 PREP.HELB Chicago, John bidali.IRGN DET ezkutitz PREP.ITUR Los Angeles
 ‘Chicagora, Jonek Los Angelesetik bidali zuen eskutitza.’
 ‘Chicagora bidali zuen Jonek ezkutitza Los Angelesetik.’ (Nam 2004:307)

Dena den, Namek (2004) ingelesezko ezkereratzean eta topikalizazioan aurkitzen dituen asimetriaren aldeko ebidentziak ez dira beste hizkuntza batzuetan gertatzen. Esaterako, (26a) adibideko perpausaren ordain gisa bi hitz hurrenkera eman ditut euskaraz, eta gauza bera egin dut (26b) ere. Hortaz, itxuraz, ezin daiteke esan perpaus batean zein bestean eman ditudan hurrenkeretako bat bestea baino gardenagoa denik. Izan ere, euskaraz Helburu eta Iturburu adposizioen Topikalizatzeak zein ezkereratzeak perpaus gramatikalak sortzen ditu.

Beste alde batetik, Koopmanek (2000) nederlanderazko preposizioen eta zirkunposizioen inkorporazioaz eginiko ikerketan topatzen du Namek (2004) Helburu eta Iturburu adposizioen asimetriaren aldeko beste argudio bat. Dioenez, nederlanderaz Helburua adierazten duen adposizioa aditzari erants dakioke, baina aditzak ez du Iturburu adierazten duen adposizioa inkorporatzerik onartzen. Honek adieraziko luke Helburu burua aditzetik gertuago sortuko litzatekeela, (48b)n ikus daitekeen bezala. Dena den, preposizio eta zirkunposizioetan aurki daitekeen inkorporazio baliabide hau ez da nederlanderazko postposizioetan lekukotzen.

- (48) a. (...) dat zij de jas over de stoel hebben heen gelegd.
 KONP 3PL. DET jertse gainean DET aulki edun.IRGN HELB jarri.IRGN
 ‘Haiek jertsea aulki gainean jarri nora dutela’
- b. (...) dat dit boek (van) onder het bed is (?*vandaan) gekomen.
 KONP 3SG. liburu (ABL) azpi DET ohe izan (?*ITUR) etorri.IRGN
 ‘Liburu hori ohe azpitik etorri nondik dela’
- (Nam 2004:306)

Euskaraz ez dago honelako inkorporaziorik. Dena dela, antzeko murriztapenik bilatu nahi izanez gero, kokapen aditzek erakusten dutena aipa liteke –ikus 2.3. atala–. Izan ere, kokapen aditzen egitura Izen Sintagma batez, adposizio batez eta *-tu* aditz partizipioaz dago osaturik, eta aditz hauek sortzeko erabil daitekeen adposizio bakarra -*ra* Helburu adposizioa da, *lehorr-(e)ra-tu* kasu. Oso bestela, kokapen aditzek ez dituzte Iturburu adposizioak onartzen, **lehorr-(e)tik-tu* (Berro 2015).

Azkenik, Namek (2004) telikotasun probetan oinarrituriko ebidentzia semantikoa aurkezten du asimetria azaltzeko. Bere iritziz, Helburu adposizioak predikatu telikoak dira, eta Iturburu adposizioak, berriz, predikatu ez-telikoak. Telikotasunak perpauseko aspektuarekin du lotura; predikatu telikoetan aspektu burutua erabili ohi da, eta perpauseko ekintza osatutzat edo amaitutzat eman liteke. Beste alde batetik, predikatu ez-telikoetan, aspektu burutugabea erabili ohi da eta perpauseko ekintza ez da osorik gauzatzen. Honi dagokionez, Namek dio ingelesezko Helburu adposizio telikoak ezin direla iraupena adierazten duten PSeKin konbinatu (49b):

(49) a. Mary ran **in* / for ten minutes.

‘Mirenek korrika egin zuen **hamar minutuan* / hamar minutuz.’

b. Mary ran to the store *in* / **for* ten minutes.

‘Mirenek dendara korrika egin zuen **hamar minututan* / hamar minutuz.’

c. Mary ran from the library **in* / for ten minutes.

‘Mirenek liburutegitik korrika egin zuen **hamar minutuan* / hamar minutuz.’

(Nam 2004: 311)

Ingelesezko adibide hauetan ikus daitekeenez, Helburu adposizioek baino ez dituzte adierazten ekintza burutuak. Euskarazko ordainetan, aldiz, ez dago Helburu adposizioen eta Iturburu adposizioen arteko alderik, aditz inergatiboak erabiltzean, biek ala biek predikatu ez-telikoak osatzen baitituzte. Aldiz, aditz inakusatiboak erabiltzean biek hala biek predikatu telikoak osatzen dituzte –(50a) eta (50b)–.

(50) a. Miren dendara korrika iritsi zen hamar minututan / **hamar* minutuz.’

b. Miren liburutegitik korrika irten zen hamar minututan / **hamar* minutuz.’

Ildo honetatik, gaztelerazko leku preposizioak aztertu dituen Romeuk (2014) preposizio gehienak telikoak direla argudiatzen du (51a) adibidean ikus daitekeen

bezala. Bestetik, predikatu ez-telikoak sortzen dituen salbuespen gisa *hacia* lekuzko preposizioa aipatzen du (51b):

(51) a. Juan llegó *a/de/hasta* casa en / *durante diez minutos.

b. Juan fue *hacia* casa *en / durante diez minutos / pero no llegó.

(Romeu 2014: 170, 206)

Euskaraz ere, hurbiltze adlatiboa edo direkzionala da predikatu ez-telikoak sortzen dituen lekuzko adposizioa (52a); terminatibo edo muga adlatiboak predikatu telikoak sortzen baititu (52b):

(52) a. Anek hegoalderantz gidatu zuen *ordubetean / ordubetez.

b. Anek eskutitzak azken etxeraino eraman zituen ordu erdian / *ordu erdiz.

4.1.2. Vietri (2020): mugimendu aditzak eta Helburu-Iturburu asimetria

Vietrik (2020), Namen (2004) ildotik, italierazko mugimendu aditzak ditu aztergai, hiztunek Helburu eta Iturburu adposizioak ekoiztean lehenesten duten hitz hurrenkerari erreparatuz. Kasu honetan ere, Helburu-Iturburu asimetriaren aldeko ebidentzia Helburuaren eta Iturburuaren ezkereratzean eta topikalizazioan hautematen du Vietrik (2020). Izan ere, italieraz Iturburu adposizioek ezkereratzea eta topikalizatzea onartzen dute, (53b) adibidean ikus daitekeen bezala. Oso bestela, Helburu adposizioek ez dute mugimendu hau onartzen (53c):

(53) a. Il pilota lanciò i viveri dall' aereo sul villaggio.

DET pilotu jaurti.IRGN DET elikagaiak PREP.ITUR hegazkin PREP.HELB herri
'Pilotuak elikagaiak hegazkinetik herrira jaurti zituen.'

b. Dall' aereo il pilota lanciò i viveri sul villaggio

PREP.ITUR hegazkin DET pilotu jaurti.IRGN DET elikagaiak PREP.HELB herri
'Hegazkinetik, pilotuak elikagaiak herrira jaurti zituen.'

c. ?? Sul villaggio il pilota lanciò i viveri dall' aereo

PREP.HELB herri DET pilotu jaurti.IRGN DET elikagaiak PREP.ITUR hegazkin
'Herrira, pilotuak elikagaiak hegazkinetik jaurti zituen.' (Vietri 2020:101-102)

Honako (32c) adibidean ikus daitekeenez, italieraz Helburu adposizioak topikalizatzean sortzen diren perpausak ez dira erabat gardenak. Vietrik (2020) dioenez, mugimendu aditzen argumentu egituran burutik hurbilago daude. Honenbestez, argumentu izaera

dutela iradokiko luke honek. Lehen 4.1.1. atalean aipatu bezala, euskarazko ordainetan adposizio bat ala bestea topikalizatzean sortzen den perpausa gramatikala da.

Asimetriaren aldeko bigarren ebidentzia bi adposizioetako bat eta aditza *pro* gisa isilik mantentzea ahalbidetzen duen *lo+fare* (ing. *do so*; eusk. *X-k berriz*) egituran topatzen du. Helburu adposizioa eta aditza isiltzean, erabat gardenak ez diren egiturak sortzen dira (54a). Bestalde, Iturburu adposizioa eta aditza isiltzean sortzen den perpausa ez gramatikaltzat jotzen da italieraz (33b):

(54) a. *Il pilota lanciò i viveri dall'aereo sul villaggio,
DET pilotu jaurti.IRGN DET elikagaiak PREP.ITUR hegazkin PREP.HELB herri,
e Max lo fece dall'elicottero.
eta Max berriz PREP.ITUR helikoptero

‘Pilotuak elikagaiak hegazkinetik herrira jaurti zituen, eta Maxek berriz helikopterotik.’

b. *Il pilota lanciò i viveri dall'aereo sul villaggio,
DET pilotu jaurti.IRGN DET elikagaiak PREP.ITUR hegazkin PREP.HELB herri,
e Max lo fece sulla spiaggia.
eta Max berriz PREP.HELB hondartza

‘Pilotuak elikagaiak hegazkinetik herrira jaurti zituen, eta Maxek berriz hondartzara. (Vietri 2020:101-102)

Euskarazko ordainei dagokionez, Helburu adposizioa eta aditza isiltzean sortzen den perpausa gramatikala da (54a) eta gauza bera gertatzen da Iturburu adposizioa eta aditza isiltzean ere (54b). Beraz, Vietrik (2020) italieraz topatzen duen asimetria hau ez da euskaraz jasotzen.

4.2. Helburuaren eta Iturburuaren asimetria sintaktikoaren aurkako ebidentzia

Namek (2004, 2012) eginiko proposamenen aldean, beste egile batzuek, Zwarts (2005) eta Gehrkek (2007) esaterako, ez diote sintaxiari egozten Iturburuaren eta Helburuaren arteko asimetria eta bestelako argudioak ematen dituzte asimetria hau azaltzeko.

4.2.1. Gehrke (2007): espazio harremanak eratortzeko estrategiak

Gehrkeren (2007) proposamena aurkeztu aurretik, aipatzekoa da egileak berak okertzat jotzen duela Namek (2004) nederlanderazko inkorporazioan onarrituz

aurkezturiko hipotesia. Gehrkek (2007) dioenez, nederlanderazko asimetria ez da Helburu eta Iturburu artekoa, preposizioen eta postposizioen artekoa baizik. Gisa honetan, *uit* ‘at, kanpo’ gisako Iturburu preposizio bat ere inkorpora daiteke aditzera:

(55) (...) dat zij de mensen de kamer hebben uit gegooid.

KONP 3PL. DET jende DET gela edun. IRGN at bota. IRGN

‘Haiek jendea gela(tik) at bota zuten.’

(Gehrke 2007: 8)

Bestalde, Telikotasunari dagokionez, Gehrkek (2007) dio ezin daitekeela Helburu eta Iturburu adposizioen arteko bereizketarik egin. Bere iritziz, Iturburu eta Helburu adposizioek har dezakete parte aspektuaren eraketan. Zwartsen (2005) hipotesia oinarri hartuz, *ibili* eta *igeri egin* gisako mugimendu aditz arruntek gertaera bakunak adieraz ditzaketela adierazten du. Hortaz, gisa honetako mugimendu aditz arruntek ezin ditzakete predikatu telikoak sortu. Mugimendu aditzek lekuzko adposizioekin bat egitean baino ezin ditzakete predikatu telikoak sortu. Ildo honetan, Iturburu adposizioek ere adieraz ditzateke predikatu ez-telikoak, Helburu adposizioen ispilu irudia baitira, esaterako, ingelesezko *away from* (56) eta *to* (49b):

(56) John ran away from the fire within/in few seconds.

‘Jonek sutetik ihes egin zuen segundu gutxian.’

Gainera, Iturburu eta Helburu arteko asimetria, noranzkotasuna eta espazio harremanak eratortzeko estrategiei egozten die Gehrkek (2007). Bere hitzetan, munduko hizkuntzek lekuzko adposizio berriak darabiltzaten *eratorpenezko estrategietan* (ing. *derivational strategies*), Helburu irakurketa duten adposizioak Iturburu irakurketa dutenak baino askoz ere maiztasun handiagoarekin sortzen dira. Esate baterako, ingelesezko preposizio konplexuak (*into*, *onto*) inesibozko preposizioak, hau da, *in* ala *on*, Helburuzko *to* preposizioarekin elkartzean sortzen dira, baina ez dago *from* Iturburu adposizioa oinarri hartuz sortzen den preposizio konplexurik (**infrom*, **onfrom*).

Bestalde, nederlanderaz, *in* gisako lokatibozko preposizioak postposizioen kokagunera mugituz gero, Leku balioaz gain, Helburu balioa ere hartu dezakete (57a). Alabaina, mugimendu honen bitartez lokatibozko preposizioek ezin dezakete Iturburu balioa adierazi:

(57) a. Willemijn zwom het meer in.

Willemijn igeri. IRGN DET laku LOK

‘Willemijnek laku barruan igeri egin zuen.’

‘Willemijnek laku barrura igeri egin zuen.’

‘*Willemijnek laku barrutik igeri egin zuen.’

(Gehrke 2007: 11)

Euskarari dagokionez, adlatiboa oinarri hartuz sortzen dira hurbiltze adlatiboa eta muga adlatiboa, baina ablatibotik ez da beste espazio-harremanik eratortzen. Gainera, kokapen aditzak ere Helburuzko adposizioa oinarri hartuz sortzen dira euskaraz.

4.3. Lan tipologikoetako tarteko ondorioak

Laburbilduz, bi atal hauetan (4.1. eta 4.2.), Helburu eta Iturburuaren arteko asimetriaren auzia argitzeko asmoa duten lan tipologikoak berrikusi dira. Lehendabizi, Namek (2004) Helburuaren eta Iturburuaren arteko asimetria sintaktikoa azaltzeko darabiltzan argudioak aurkeztu dira. Argudio hauek ez dira ezinbestean beste hizkuntzetan lekukotzen, hortaz, ezin daiteke baieztatu Helburua eta Iturburuaren arteko sintaktiko banatan sortzen direnik. Gauza bera gertatzen da Vietrik (2020) italiarazko topikalizazioan topatzen dituen asimetriekin, gainerako hizkuntzek ez baitituzte ezinbestean emaitza hauek erakusten.

Bestalde, Gehrkek (2007) beste ikuspegi batetik heltzen dio arazoari, eta asimetria sintaktikoaz hitz egin beharrean, erabiliera esparruari eta emankortasunari egotzen dio asimetria hau. Gehrkek (2007) dioenez, Helburu adposizioa lehenestearn aldeko joera dago munduko hizkuntzetan. Esaterako, adposizio berriak maiztasun handiagoarekin eratortzen dira Helburuzko adposiziotik Iturburuzko adposiziotik baino, eta hitz hurrenkeran, Helburua sarriago agertzen da aditzaren aurrean. Gehrkeren proposamenarekin bat etorritik, asimetria ez du adposizioen funtzio sintaktikoak zehazten. Beraz, Helburuen argumentu izaera eta Iturburuaren adjuntu izaera baieztatzeko bestelako argudioak beharko lirateke.

4.4. Lan esperimentalak

4.4.1. Landau eta Lakusta (2005, 2010)

Landau eta Lakustak (2005) Iturburu eta Helburua *Bide egitura* gisa (ing. *Path type structures*) sailkatzen dituzte. Helburu orientazioa (ing. *Goal-oriented*) duten Bide egiturek helmuga edo amaiera puntu bateranzko mugimendua adierazten dute. Zenbait aditzek helmuga bateranzko leku aldaketa adierazten dute, eta hortaz, aditz hauek

Helburu orientazioa dutela aipatzen dute egileek. Honen adibide dira *throw* ‘jaurti’, *send* ‘bidali’ gisako aditzak. Bestetik, Iturburu orientazioa (ing. *Source-oriented*) duten Bide egiturek, abiapuntu edo jatorri batetik urruntzen den mugimendua adierazten dute. Hortaz, *receive*, *catch* ‘jaso’ gisako aditzek Iturburu orientazioa dutela aipatzen dute.

Haurrak hizkuntza jabekuntzaren lehendabiziko aroetan hasten dira Bide egitura hauek ekoizten. Esaterako, 14–21 hilabete bitarteko haurren ekoizpenetan bi hitzezko egiturak perpausak nagusi diren arren, Bide egiturak aurki daitezke dagoeneko, bai Iturburua adierazteko eta baita Helburua adierazteko ere. Prozesamenduari dagokionez, haurrek abiapuntuan baino enfasi handiagoa jartzen dute mugimendu aditz batek adierazten duen helmugan, eta asimetria hau euren ekoizpenean islatzen da (Landau eta Lakusta 2005: 5).

Gainera, Bidea adierazten duten galderak egiten zaizkienean, 3–4 urte bitarteko haurrentzat errazagoa da objektu jakin bat ‘nora’ mugitu den erantzutea ‘nondik’ mugiten den erantzutea baino. Hori dela eta, ipuinetako pasarteak berriro kontatzean *eman* eta *eraman* (Helburu-orientazioa duten) aditzak, *hartu* (Iturburu-orientazioa) gisako aditzak baino maiztasun handiagoz erabiltzen dituzte. Bestalde, perpausetako Helburu eta Iturburu adposizioen aldaketaz edo trukaketaz ohartzeko gaitasuna neurtzea helburu duten esperimentuetan, helduek perpauseko Helburua aldatu dela detektatzeko gaitasun handiagoa dutela ikusi da. Aldiz, akats gehiago egin ohi dituzte perpauseko Iturburua aldatu dela adierazterakoan (Landau eta Lakusta 2005:5-6).

Hau oinarri hartuta, euren lan esperimentalean 4:11 eta 7:5 urte bitarteko 10 haurren, Williams sindromea duten 9:2 eta 17:9 urte bitarteko 10 haurren eta graduatu berriak ziren 12 ikasleren datuak aztertu zituzten. Materialei dagokienez, parte hartzaileei 5 segundoko 34 bideo sekuentzia erakutsi zizkieten; horietatik hemezortzik mugimendu aditzak adierazten zituzten, beste seik objektu bat jabez aldatzea eta beste seik objektu bat hartu ala uztea, eta lau sekuentziak egoera aldaketak adierazten ziren.

Emaitzei dagokienez, Landau eta Lakustak (2005) ikusi zuten Helburua adierazten duten Bide egiturak sistematikoki eta era erregularrean ekoizten zirela. Oso bestela, Iturburuak aipatu gabe ala isilean geratzen ziren emaitzetan, joera hau hiru parte hartzaile taldeetan eta egoera mota guztietan aurkitu zen. Esate baterako, mugimendua

adierazten zuten sekuentzien berri ematerakoan, ohikoagoa zen Helburua aipatzea (*move to, into the pitcher*) Iturburua aipatzea baino (*move out of the bucket*).

Objektu bat jabez aldatzea adierazten zuten sekuentzien kasuan ere, Helburua (*give the flowers to the women*) Iturburua baino (*receive the flowers from the man*) maiztasun handiagoz erabiltzen zutela ondorioztatu zuten. Parte hartzaileek Helburu-orientaziodun aditzen aldeko hautua (*give, throw*) erakutsi zuten eta Iturburu-orientaziodun aditzak (*get, catch*) kasu gutxiagotan erabiltzen zituzten (Landau eta Lakusta 2005:10).

Bestalde, egoera aldaketak adierazten zituzten sekuentzietan objektu baten kolore aldaketa aurkezten zitzairen parte hartzaileei. Gisa honetako perpausetan Iturburua eta Helburua perpaus berean ekoizteko aukera egon arren (*the bear's nose changed/went from blue to yellow*) bi taldeetako hurrek Iturburua ez adierazteko joera erakutsi zuten (*the nose changed to yellow*). Gainerakoan, helduek Iturburua eta Helburua bata bestearen atzetik aurkezten zituzten gehienetan (*it went from red to black*), nahiz eta kasu batzuetan Helburu hutsa ere ekoizten zuten (*it went to black*) (Landau eta Lakusta 2005: 12).

Emaitza hauek aztertu ondoren, bigarren esperimentua egin zuten Iturburu-orientaziodun aditzak ekoiztera bideratua, parte hartzaileek baldintzaturiko egoera batean erantzun zezaten. Kasu honetan ere Bide egitura bien asimetria agerikoa zela ikus zuten, parte hartzaileek Iturburua adierazten zuen PS isilean mantentzen baitzuten ala perpausa Helburu-orientaziodun aditz batez (*hock, stick*) ordezkatzeko baitzuten (Landau eta Lakusta 2005: 14).

Beraz, hurrek, eta neurri txikiagoan helduek, Helburua linguistikoki adierazteko joera handiagoa dutela ondorioztatzen dute. Helburuaren aldeko hautu honek hizkuntzaz kanpoko errepresentazioetan izan dezake jatorria, eta funtsezko garrantzia izan dezake hizkuntza jabekuntza prozesuan, Helburua adierazten duten Bide egiturak Iturburua adierazten dutenak baino beharrezkoagotzat jotzea baitakar. Horrez gain, hurrek objektuen mugimendua edo egoera aldaketak adierazteko hautaturiko aditzen artean ere Helburu-orientaziodun aditzak dira nagusi, (*'sell > buy; throw > catch, go > came'*) (Landau eta Lakusta 2005: 31).

4.5. Lan esperimentaletako tarteko ondorioak

Laburbilduz, Landau eta Lakustak (2005, 2010) diseinaturiko esperimentuek, Helburuzko adposizioa lehenestearen aldeko joera orokor bat dagoela berresten dute, Gehrkeren (2007) ildoko proposamenekin bat etorriz. Esperimentu hauen emaitzek erakusten dutenez, bi adposizioetako bat esplizituki adieraztekotan, Helburuzko adposizioari eusteko joera naturala erakusten dute parte hartzaileek, eta joera hau gramatikan islatzen da. Gainera, Helburua lehenesteko joerak garrantzia handia du hizkuntza jabekuntza prozesuan, haurrek ere oso goiztik erakusten baitute joera hau. Gauzak horrela, hurrengo atalean, Helburu adposizioa lehenestearen aldeko ebidentziak aurkitzea izango dut helburu. Horretarako, Helburu eta Iturburu adposizioen arteko hurrenkera aztertzea xede duen esperimentu bat prestatu dut.

5. Atal esperimentalak: Helburu-Iturburu asimetria aztergai

Aurretiaz (3.3. atalean) esan dudan bezala, euskaraz lekuzko adposizioek kokalekua eta mugimendua adierazten duten aditzen argumentu gisa jokutzen dute. Aditz iragangaitzetan, perpausa osotasunean ulertzeko ezinbestekoa da adposizio hauek esplizituki adieraztea, oinarritzko informazioa adierazten baitute; hortaz, ohiko osagarri gunean sortzen direla proposatu dut. Bestetik, aditz iragankorretan lekuzko adposizioak argumentu izan badaitezke ere, ASren espezifikatzailean sortzen direla proposatu dut, ASren osagarri gunean ohiko argumentua, objektua, sortzen baita. Dena den, badirudi egitura eratorrian Helburuzko adposizioak aditzaren aurrean adierazi ohi direla –3. atalean sakonago lantzen da–.

Honez gain, 4. atalean Helburuzko eta Iturburuzko adposizioen artean hainbat asimetria lekukotzen direla erakutsi dut. Asimetria honen ebidentzien artean nabarmendu ditut batetik Helburuaren eta aditzaren arteko hurbiltasuna, eta bestetik, Helburua esplizituki adierazteko beharra. Asimetria honi dagokionez, nire gogoeta orain artean nagusiki teorikoa izan da. Hemendik aurrerakoan, ordea, atal esperimentalak gaineratu nahi izan dut nire lanera. Izan ere, nire hasierako intuizioak eta geroko analisi teorikoa esperimentu baten bitartez osatu nahi izan ditut, sistematikoki jasoaz zein diren hiztunek asimetria honen inguruan dituzten juzkuak. Esperimentuaren emaitzek erakutsiko dutenez, ikuspuntu teorikotik proposatutako hierarkia berresten da esperimentuaren bitartez ere.

5.1. Aurrekariak

Esperimentua diseinatu aurretik, aintzat hartu dut lehenagoko ikerketetan aztertutakoa. Esate baterako, Landau eta Lakustak (2005) erakusten dutenez, Helburua adierazten duten adposizioak esplizituki adierazteko joera handiagoa dago. Aldiz, Iturburu adierazten duten adposizioak isiltzea ohikoagoa da. Bestetik, sintaxia eta hitz hurrenkera aztertzen duten lanetan (Nam 2004, Vietri, 2020) esaten denez, topikalizaziok eta bestelako mugimenduek ere asimetriak erakusten dituzte. Iturburuak fokalizatuz sortzen diren perpausak gramatikalak izan ohi dira; Helburuak topikalizatzea, aldiz, arazotsuagoa izaten da, maiz perpaus ez-gramatikalak sortuz. Honek iradokitzen du aditzaren eta Helburuaren artean lotura estuagoa dagoela aditzaren eta Iturburuaren artean dagoena baino. Dena den, euskaraz ez dirudi honelako topikalizazioan asimetriarik dagoenik. Horrenbestez, Helburuzko eta Iturburuzko adposizioen arteko asimetria aztertu ahal izateko, adposizio hauek mugimendu aditz iragankorretan erakusten duten hurrenkera aztertzea erabaki dut esperimentu honetan.

5.2. Hasierako hipotesiak

Aurretik (3.3. atalean) esan dudanez, egitura iragankorretan mugimendu aditzek Helburuzko adposizioekin Iturburuzkoekin baino lotura estuagoa dute. Izan ere, Helburua argumentua dela adierazteko beharra handiagoa dute eta hau ez-markatutzat jotzen den hitz hurrenkeran islatzen da:

(58) a. Aitak menditik loreak dakartza. [Iturburu-Gaia-Aditza]

b. Aitak gutuna etxera bidali du. [Gaia-Helburua-Aditza]

Adibide honetan ikus daitekeenez, (58a)n Iturburuak sortzezko egituran duen hurrenkera erakusten du; (58b)n, berriz, Helburua aditzaren aurretik ageri da. Hau azaltzeko, aditz komunztadura duen DSa (gaia), egituran gora egiten duela proposatu dut, Helburua (komunztadurarik gabeko argumentua) eta aditza elkarren alboan agertu ahal izateko. Gauzak honela, honako hauek dira esperimentua egin aurretik proposatzen ditudan hipotesiak:

- I. Hipotesia: Hitzunen hautuetan, Helburuzko adposizioa gaiaren eta mugimendu aditzaren artean agertuko da, maiztasun handiarekin agertu ere. Iturburuzko adposizioek, berriz, jatorrizko (Iturburu-Gaia) hurrenkerari jarraituko diote, eta gaiaren eta aditzaren ezkerretara agertuko dira, maiztasun handiarekin.
- II. Hipotesia: Perpaus iragankor batean Iturburu eta Helburua batera ageri direnean, mugimendu ala transferentiza aditzaren aurrean kokatuko dira biak,

Helburuzko adposizioaren eraginez, eta gaia aurreko guztien ezkerretara (mugituta) agertuko da, maiztasun handiarekin Gaia-Iturburu-Helburua hurrenkera erakutsiz.

5.3. Esperimentuaren diseinua eta metodologia

Metodologiari dagokionez, esperimentu honek, euskarazko mugimenduzko aditz iragankorretan Helburu eta Iturburu Sintagmen eta gaia adierazten duen DS osagarriaren arteko hurrenkera aztertzea du helburu. Zehatzago esanda, hiztunentzat perpaus iragankorretako adposizioen eta gaiaren arteko hitz hurrenkera ez-markatua zein den aztertu nahi da. Horretarako, aukera anitzen artean hautatzeko esperimentu bat prestatu da.

Atal honetan, esperimentua prestatzerakoan eta materialak hautatzerakoan aintzat hartutako irizpideak zehaztuko dira, bai eta esperimentuan parte hartu aurretik parte hartzaileei emandako jarraibideak ere. Honez gain, esperimentuko parte hartzaileen profila ere aipatuko da.

5.3.1. Parte hartzaileak

Perpaus iragankorretako lekuzko adposizioak ahozkoan maiz erabiltzen diren egiturak dira, eta, hortaz, esperimentu honetarako parte hartzaileen profila zehazterakoan ez dira baldintza asko jarri. Parte hartzaileei eskatu zaien baldintza bakarra euskaraz jakitea izan da eta egunerokotasunean euskara, neurri batean behintzat, erabiltzea. Honez gain, hizkuntzalaritzan ez diharduten parte hartzaileak hautatu dira. Gauzak horrela, esperimentu honetako lagina 28 parte hartzailek osatzen dute. Sexuari dagokionez, 16 emakumek (%57,2) eta 12 gizonek (%42,8) hartu duten parte esperimentuan.

Parte hartzaileen hizkuntza profilarri dagokionez, esperimentu hasieran euren ama hizkuntza zehaztea eskatu zaie datu emaileei. Parte hartzaileen artean hamasei dira euskara ama hizkuntzatzen dutenak; beste sei parte jaiotzetiko elebidunak dira, eta beste biren ama hizkuntza gaztelera da.

Adinari dagokionez, parte hartzaile 21-62 urte bitarteko adin tartean kokatzen dira. Adinaren batezbestekoa ($M =$) 31,85 urtekoa izan da eta desbideratze estandarra ($\sigma =$) 15,42 urtekoa da; beraz, adinak desbideratze altua erakusten du. Gainera, adinaren araberako banaketa ez da simetrikoa izan, mediana ($Me =$ 23) askoz hurbilago dago lehendabiziko kuartiletik ($Q1 =$ 22) hirugarrenetik ($Q3 =$ 43,5) baino (diagrama kutxa II.

eranskineko 1. taulan). Hau da, datu emaileen multzo bat 21-24 adin tartean kokatzen da eta gainerako parte hartzaileen adinak sakabanatze handiagoa erakusten du, 43-62 urte bitartean. Adinak emaitzetan eraginik izan dezakeen ere aztertuko dut.

5.3.2. Materialak

Esperimentu honetan erabili den materiala 48 perpausez dago osaturik. Perpaus hauek bikoteka antolatu dira (1A,1B;2A,2B,etab.), 24 perpaus pare osatuz. Perpaus bikote bakoitzean, A perpausak hitz hurrenkera jakin bat erakusten du eta B perpausak beste bat. Prestatutako materialen erdiak, Helburu ala Iturburuzko adposizio baten eta DS osagarriaren arteko hurrenketa aurkezten du, eta beste erdia *filler* moduan erabilitako perpaus betegarriek osatzen dute. Aldi berean, erabilitako materiala bi ataletan bereizi da. Lehendabiziko atalak materialen bi heren hartzen ditu eta bigarren atalak heren bat –I. eranskinean material guztia sailkaturik ageri da–.

Helburu eta Iturburu adposizioak baldintza eta proportzio berean aztertu dira. Biak ala biak, mugimendu aditz iragankor baten argumentu izan daitezkeen testuinguruetan aztertu dira. Hona hemen adibide bana:

- (59) a. Norak lanera Josu darama. (3A) (60) a. Kepak dendatik ogia ekarri du. (5A)
b. Norak Josu lanera darama. (3B) b. Kepak ogia dendatik ekarri du. (5B)

Adibide hauetan Iturburuzko eta Helburuzko egiturek aditzaren argumentu gisa ageri dira eta eredu honetakoak dira 1-8 perpaus bikoteak. Hortaz, esperimentu honetan ez da adjuntu gisa jokatzeko duten mugimenduzko PSen hitz hurrenkera aztertu; alegia, *etxetik trumoa entzun dut* gisakoak ez dira aintzat hartu. Lehenengo atalean beraz, adposizioen eta osagarri zuzen funtzioa duen DS absolutiboaren arteko 4 hurrenkera aurkeztu dira: HELB>OZ hurrenkedun 4 perpaus, OZ>HELBdun 4; ITUR>OZdun 4 eta OZ>ITUR hurrenkeradun beste 4, 16 guztira.

Aipatutakoez gain, lehen zatian 16 perpaus betegarri ere agertzen dira 9-16 perpaus bikoteetan sailkatu direnak. Ikertu nahi diren perpaus iragankorretan (1-8 bikoteetan) 4 elementu¹⁰ ageri dira: subjektua, Adposizio Sintagma, osagarri zuzena eta aditza. Beraz, perpaus betegarrietan ere 4 elementu erabiltzea erabaki da. Dena den, 1. atalean bi motatako perpausak erabili direla filler moduan. Nolabait esateko, ikertu nahi

¹⁰ Ikertu nahi ditudan perpausetako elementuak zehazterakoan, aldi berean aipatu dira funtzioak (subjektu eta osagarri zuzena) eta kategoriak (Adposizio Sintagma eta aditza), osagai bakoitzaren deitura gardenena erabiltzeko asmoz egin dut hau. Beste zenbaitetan, rolak erabiltzea hobetsi dut (adib. Gaia-Iturburua).

diren perpausak filler gisa erabilitako bi baldintzen erdibidean daude. Batetik, bi adposiziodun 8 perpaus iragangaitz erabili dira (9-12 bikoteak). Hauetan, subjektua, Iturburua, Helburua eta aditza ageri dira (61a eta 62b). Bestetik, adposiziorik gabeko 8 perpaus ditransitibo (13-16 pareak) erabili dira. Hauetan, subjektua, zehar osagarria, osagarri zuzena eta aditza ageri dira (62a eta 62b):

- (61) a.Mikel eskolatik etxera doa. (9A) (62) a.Aitak alabari giltzak eman dizkio. (13A)
b.Mikel eskolara etxetik doa. (9B) b.Aitak giltzak alabari eman dizkio. (13B)

Bigarren atalean, aldi berean, Helburua eta Iturburua erakusten dituzten 8 perpaus iragankor (17-20 bikoteak) agertzen dira. Perpaus hauetan (63), bost elementu ageri dira: subjektua, Iturburua, Helburua, osagarri zuzena eta aditza. Perpaus hauetako bakoitzean bi adposizio ageri dira, biak ala biak osagarri zuzenaren ezkerretara ala eskuinetara. Beraz, orotara 24 perpaus erabili badira ere, 36 baldintza islatzen dituzte, eta aztertu nahi den baldintza bakoitzeko zortzina item sortu dira (HELB>OZ 8; OZ>HELB 8; ITUR>OZ 8; OZ>ITUR 8). Datu hauekin bat etor daitezten, bigarren ataleko perpaus betegarriek ere bost elementu dituzte. Kasu hauetarako, perpaus ditransitiboek PS adjuntu balioa duten inesiboak gaineratu dizkiet, denborazko adiera dutenak (64):

- (63) Norak autoa tailerretik etxera dakar. (20B)
(64) Ikerrek goizean txoriei ogia bota die. (22B)

Adibideotan ikus daitekeenez, (20B) perpaus aditz sintetiko edo trinkoa ageri da; (22B) perpaus berriz, aditzak forma analitikoak du. Aditz analitikoek perpausen bi heren hartzen dituzte eta sintetikoek heren bat. Bestalde, bikoteko A perpausak forma sintetikoa erakusten duenean, Bk ere forma sintetikoa erakutsi ohi du. Erabili diren mugimendu aditzak honako hauek izan dira: *bota, eraman, ekarri, itzuli, jaurti* (iragankorretan) eta baita *joan* eta *etorri* ere (filler iragangaitzetan). Dena den, ez dut aurreikusten honek emaitzetan eragina izan dezakeenik.

Azkenik, bada perpaus bakoitzeko hitz kopuruaren inguruan zehaztu beharreko beste kontu bat. Aditzaren forma sintetiko ala analitikoak erabiltzeak perpausko hitz kopurua aldatzen du, baita adjetiboak erabiltzeak ere. Lehenengo ataleko bi perpaus paretan, hain zuzen, adjektibodun DSak erabili ditut: *arrain txikiak uretara itzuli* (4A/4B) eta *kanika gorriak poltsikotik atera* (7A/7B). DS osagarriari adjektiboa eransteak emaitzetan eraginik duen kontrolatuko da.

5.3.3. Prozedura

Esperimentua IbexFarm¹¹ plataforma erabiliz diseinatu da. Esperimentua egin ahal izateko, parte hartzaileei esperimentuaren esteka partekatu zitzaien telefono mugikor bidez zein e-postaz. Parte hartzaileek esperimentua telefonotik egin zezaketen zuzenean, partekatutako esperimentua baliatuz, baita ordenagailuz ere, hala nahi izanez gero. Esperimentuaren batezbesteko iraupena 5-8 minutu bitartekoa da.

Esperimentuaren atarian norbere profila zehaztu ostean, ariketa egiteko argibideak aurkeztu zitzaizkien parte hartzaileei. Argibideen atalean jakinarazi zitzaien euskarazko perpaus bikoteak aurkeztuko zitzaizkiela eta eurentzat hitz hurrenkera ez-markatua erakusten zuen perpausa hautatu beharra zutela. Euren hautua adierazteko, “1” ala “2” teklen gainean, edota aukeratutako perpausaren sakatu behar zutela ere zehaztu zitzaien argibideetan. Horrez gain, perpaus bikoteak arretaz irakurtzeko ere eskatu zitzaien. Honen ondotik, bi trebatze ariketak erantzun behar zituzten funtzionamendua ulertu zutela egiaztatzeko.

Materialen atalean zehaztu bezala, lehendabiziko atalean Helburu adposiziodun perpaus iragankorren bikoteak eta Iturburu adposiziodun perpaus iragankorren bikoteak aurkeztu zitzaizkien, aipatutako fillerrekin batera. Aldi bakoitzean, perpaus bikote bana aurkezten zen, <<Hauta ezazu zuretzat hitz hurrenkera egokiena duen perpausa>> mezuarekin batera. Lehen atala amaitzean, bigarren atalarekin jarraitzeko pantaila erakusten zien esperimentuak. Bigarren atalean, aldi berean Helburu eta Iturburu adposizioak dituzten perpaus bikoteak aurkeztu zitzaizkien, atal honetarako fillerrekin batera. Ariketa amaitzean, bidaltzeko sakatu eta informazioa datu basera bidaltzen zen zuzenean.

5.3.4. Datuen analisisa

Datuen analisisa egin ahal izateko, parte hartzaileen erantzun denborak aztertu dira lehendabizi. Emaitzek erakusten dutenez, hautu bakoitza egiteko erabili den batezbesteko denbora 10,36 segundukoa izan da eta desbideratze estandarra 8,92 segundukoa. Dena den, erantzun denborek sakabanaketa handia erakusten dute, 0,39 segundutan hasi eta 80,52 segundutara bitarteko erantzun denborak jaso baitira. Zenbaki

11 IbexFarm sarean esperimentu psikolinguistikoak egiteko eta hauek ostatzeko diseinatu zen webgune bat da; 20.000 esperimentutik gora ageri dira bertan. 2021eko irailaren 30ean itxiko da. (IbexFarm <<https://www.google.com/search?client=firefox-b-d&q=ibexfarm>>).

hauen atzean nahigabe sakatutako erantzunak eta arreta galtzeak egon daitezkeenez, datuak garbitzeko irizpide batzuk ezarri dira. Lehenik eta behin, erantzun denboren diagrama kutxa osatu da (II. eranskineko 2. taula). Zentzu honetan, erantzun deborek erakusten duten banaketa ez da simetrikoa; izan ere, mediana ($Me=7,42$ seg.) hurbilago dago lehendabiziko kuartiletik ($Q1= 5,04$ seg.) hirugarrenetik ($Q3= 11,95$ seg.) baino.

Esperimentu honetan egin beharrekoa perpausen artean hautatzea denez, litekeena da parte hartzaileek, euren hautua egin aurretik denbora apur bat behar izatea. Hau kontuan hartuz, 2,5 segunduz azpiko eta 30 segunduz gaindiko erantzun denborak baztertu dira. Honez gain, batezbestekoari desbiazio estandarra gehitu (19,29 seg.) eta hau baino 5 segundu gehiagoko mugatik (24,29 seg.) haratagoko erantzun denborak ere baztertu egin dira. Orotara, aztergaiak eta fillerrak kontuan hartuta, baldintza guztietan erantzun diren 672 esaldietatik 52 baztertu dira, %7,7a. Aztergai diren 336 perpausetatik 24 baztertu dira, %7,14a. Baldintza bakoitzean hitz hurrenkera bakoitzak erakusten duen proportzioa hurrengo atalean zehazten da.

5.4. Emaitzak

Ezohiko erantzun denborak baztertu ondoren, 312 datuk osatu dute aztertu dudana lagina. Guztira aztertu diren 312 hautuetatik, 215 alditan (%68,9), OZ-P¹² hurrenkera lehenetsi da. Bestetik, P-OZ hurrenkera 97 aldiz hautatu da, erantzunen %31,1a. Perpaus mota bakoitzari dagozkion emaitzekin jarraitu aurretik, esan beharra dago emaitzak interpretatzerakoan, ez direla perpaus betegarrietako erantzunak berariaz aztertu. Dena den, lan honetan zehar, lekuzko adposizioak aztergai izan ditudanez, filler moduan erabili diren Iturburu eta Helburu adposiziodun perpaus iragangaitzetan Iturburu-Helburu hurrenkera ia salbuespenik gabe hautatu dela zehazten dut. Esaterako 9A *eskolatik etxera* perpausa, erantzunen %100ean (25/25) hautatu dute, eta honen perpaus bikotea den 9B *etxera eskolatik* ez da inoiz hautatu.

Lehenengo ataleko Helburuzko adposiziodun perpaus iragankorreari dagokionez, datu emaitzek OZ-HELB hurrenkera lehenetsi dute hautuen %91,3an (95/104). Bestetik, HELB-OZ hurrenkera %8,7tan baino ez dute hautatu (9/104) –ikus II. Eranskineko 3. taula–. Perpaus bikote bakoitzeko hautuen proportzioari dagokionez, esan beharra dago 1A-1B (*ogia etxera/etxera ogia*) eta 2A-2B (*gutuna postontzira/postontzira gutuna*) bikoteetan aldakortasun handiagoa topatzen dela, OZ-HELB hurrenkera hautuen %84ek

¹² P darabil bi adposizio motek (Helburuak eta Iturburuak) osagarriarekiko duten hurrenkera adierazteko.

islatzen baitute. Hauen aldean, OZ-HELB hurrenkera maiztasun handiagoz (%95) hautatu dute 3A-3B (Josu lanera/lanera Josu) eta 4A-4B (*arrain txikiak uretara/uretara arrain txikiak*) bikoteetan.

Lehenengo ataleko Iturburuzko adposiziodun perpaus iragankorretan, berriz, Iturburu-OZ hurrenkera da datu emaileek gehien hautatu dutena (55/106), %52ean. Hala ere, OZ-Iturburu hurrenkera ere maiz hautatu dute, 51 aldiz hain zuzen, (%48a) –ikus II. Eranskineko 4. taula–. Hemen aipatzekoa da 6A-6B perpaus bikotean egin duten hautua, izan ere, OZ-Iturburu hurrenkeradun *Nahiak Jone eskolatik jaso du* (6B) 26 aldiz hautatu dute, eta *Nahiak eskolatik Jone jaso du* (6A) behin baino ez. Perpaus bikote hau da (3A-3Bekin batera) DS osagarri gisa izen berezi bat duen bakarra. Beraz, baliteke hitz hurrenkerak beste lehentasun batzuk izatea izen bereziak lekuzko adposizioekin uztartzen diren kasuetan. Iturburuzko adposiziodun perpausen artean, 7B perpausak *Peruk poltsikotik kanika gorriak atera ditu*, erakusten du Iturburu-OZ hurrenkeraren maiztasun handiena, %64a. Beraz, adjetibodun DSak erabili diren perpausetan (4A-4B eta 7A-7B) maiztasun handiagoarekin hautatu da aurreikusitako hitz hurrenkera.

Bestetik, [Iturburu-Helburu] adposizio bikotearen eta osagarri zuzenaren arteko hautuetan, OZ-[ITUR-HELB] hurrenkera %67,6an lehenetsi da (69/102) eta [ITUR-HELB]-OZ hurrenkera berriz, %33,4ean (33/102). Beraz, noranzkotasuna zehazten duten bi adposizioen artean Helburu hurrenkera da gehien lekukotu dena –ikus II. Eranskineko 5. taula–. Perpausez perpausko emaitzei erreparatuz, nabarmentzekoa da 22A-22B (*azokatik jatetxera opilak*) bikotean bi hurrenkerak ia maiztasun berean hautatu izana, OZ-[ITUR-HELB] %52an eta [ITUR-HELB]-OZ hurrenkera %48an.

Emaitza hauei erreparatzeaz gain, T-test bat egin da, lehendabiziko ataleko 4 baldintzak binaka alderatuz –ikus II. Eranskineko 6. taula–. Emaitzek erakusten dutenez, OZ-HELB eta HELB-OZ baldintzak alderatzen direnean, bariazioak ($t = 15,95$) balio altua erakusten du HELB-OZ baldintzaren aldera, hurrenkera hau askoz maiztasun gutxiagorekin hautatu baita. Gainera, probabilitatearen p balioa 0,05 baino txikiagoa denez ($p > 0,001$), hasierako hipotesia berresten da Helburuaren hurrenkerari dagokionean. Bestetik, ITUR-OZ eta OZ-ITUR baldintzak alderatzen direnean, bariazioak ($t = 0,54$) OZ-ITUR baldintzaren aldera egiten du, gutxi bada ere. Honek esan nahi du, OZ-ITUR maiztasun gutxiagorekin hautatu bada ere, aldea ez dela

esanguratsua. Probabilitatearen p balioak hau berresten du, 0,05 baino handiagoa da eta ($p = 0,59$), honenbestez, aztertutako datuekin ezin daiteke hasierako hipotesia berretsi Iturburuaren hurrenkerari dagokionez.

Azkenik, esan behar da adinak ez duela emaitza esanguratsurik sortu. Parte hartzaile gazteek eta helduagoek proportzio berean hautatu dute perpaus mota bakoitza. Hala ere, aipatzekoa da ohiko erantzun denborak gainditu dituzten (eta honenbestez, baztertu diren) hautuen proportzioa handiagoa izan dela parte hartzaile helduenetan.

5.5. Esperimentuaren ondorioak

Emaitzek hasierako hipotesiak berresten dituzten galdetuta, Helburuzko adposizioen kasuan hipotesiak berretsi direla erantzun behar da. Iturburuzko adposizioen kasuan, emaitzek gehien hautatu duten hurrenkera Iturburua-Gaia hurrenkera (%52) bada ere, Gaia-Iturburua baldintza ere maiztasun handiarekin hautatu dute (%48), eta bi baldintzak ia parez pare daudela esan daiteke. Hala ere, datuak oso esanguratsuak dira, Iturburuzko adposizioetan ez baita nagusitzen OZ-P hurrenkera. Helburuzko adposizioetan ia salbuespenik gabe lekukotu den hurrenkera. Hortaz, bi adposizioen artean banaketa asimetricoa du hitz hurrenkerak. Halaber, esanguratsuak dira izen bereziak ageri diren DSetan jaso diren emaitzak, Helburua zein Iturburua agertzen dela ere, OZ-P hurrenkera hautatu baita ia salbuespenik gabe. Hasieran aurkeztutako II. Hipotesia ere berretsi da, Helburuaren eraginpean, bi adposizioek OZ-[ITUR-HELB] hurrenkera erakusten baitute kasuen %67,6an.

Amaitzeko, zehaztu behar da hurrenkeran ageri den asimetria hau ez duela funtzio sintaktikoak baldintzatzen; izan ere, 3.3. atalean, bi adposizioak maila berean kokatu ditut eta osagarri zuzenaz eta zehar osagarriaz bestelako aditzaren argumentu gisa sailkatu ditut. Beste lan esperimentaletan (Landau eta Lakusta 2005, 2010) aipatu den bezala, esperimentu honetako emaitzek ere agerian jartzen dute, aditzak Helburuzko adposizioak lehenesteko joera duela. Esperimentu honetan ikusi denez, osagarri zuzena izen berezi bat den kasuetan, aditzak Iturburua Gaia baino hurbilago egotea lehenesten du.

6. Eztabaida eta gerora ikertu beharrekoak

Lan honetan, euskarazko lekuzko adposizioen azterketa egin dut, hiru ildo nagusitan. Lehenik eta behin, Nanosintaxiaren eremu teorikoan, lekuzko adposizioak

sailkatzeko egin den Pantchevaren (2011) Bide Sintagmaren dekonposizio hipotesia eta euskarazko adposizioak aztertu dituzten Etxepare (2013) eta Berroren (2015) proposamenak oinarri hartuz, euskarazko leku adposizioen hierarkia sintaktikoa aurkeztu dut. Ondoren, Pantchevaren (2011) analisia lekuzko beste egituretara hedatu daitekeela proposatu dut, Mendebaldeko *-ra arte* terminatibora, *non zehar* gisako egitura prosekutiboetara eta lekuzko adposizio bizidunetara besteak beste. Bigarren atalean, lekuzko adposizioen futzio sintaktikoa berrikusi duten gramatika deskriptiboak (Baker 2003, Huddleston eta Pullum 2002) eta proposamen sintaktikoak (Elordieta 2001, 2003, Arregi eta Ormazabal 2003, Fernández eta Ortiz de Urbina 2010) aztertu ostean, lekuzko adposizioak mugimendu eta kokaleku aditzen argumentu direla ondorioztatu dut eta ASn duten sorgunea eta gainerako argumentuekiko harremana zehaztu ditut. Azkenik, hirugarren atalean, euskarazko Helburu eta Iturburu adposizio sintagmen arteko asimetria aztertzeko esperimentu bat egin dut, perpaus iragankorrak aztertuz. Emaitzek erakutsi dutenez Gaia-Helburua hitz hurrenkera lehenesteko joera markatua dagoela euskaraz ere.

Dena den, lehendabiziko bi ataletan egin ditudan proposamenetako batzuk ezin izan ditut eremu esperimentalera eraman eta etorkizunean sakonago aztertu beharko liratekeela uste dut. Batetik, interesgarria litzateke perpaus iragangaitzetan argumentu gisa jokatzeko PS egiturak, perpaus iragankorretako PS adjuntuekin alderatzea. Bereziki, aditzaren argumentu diren lokatibozko PS egituren (*etxean* egon) eta denbora balioa duten lokatibozko PS adberbialen (*goizean*, *neguan*, *etab.*) arteko aldea aztertzea komeniko litzatekeela uste dut. Izan ere, PS adjuntu hauek, aditzetik urruneko gune batean egotea espero da.

Bestetik, lan honen Nanosintaxiaren atalean aurkeztu diren gainerako adposizioen hurrenkerari ere erreparatu beharko nioke. Hitz hurrenkera asimetrian aurkitu dudana Helburuaren aldeko joera (Gaia-Helburua), Helburua oinarri hartuz eraikitzen diren Muga adposiziora (terminatiboa) eta Eskala adposiziora (direkzionala) zabal daitekeen egiztatzea komeniko litzateke. Lekuzko egitura konplexuagoetan, Mendebaldeko *-ra arte* egitura terminatiboan eta *non zehar* gisako egitura prosekutiboetan, DS osagarriaren (Gaiaren) eta Adposizio Sintagmaren arteko hurrenkera aztertzeke dago, baita lekuzko adposizio bizidunen jokabidea ere.

Aipatutakoez gain, egitura ditransitiboen eta Helburuzko adposizioen bateragarritasunari lan esperimentaletatik erreparatu behar zaio. Lan honetan ez dira honelako egiturak aztertu, lehendabiziko esperimentu baterako konplexuegiak direla uste baitut. Gisa honetako perpausetan rol tematiko ugari (Egilea, Gaia, Onuraduna, Helburua, Ituburua) ager daitezke aldi berean, eta hortaz, konplexua izan daiteke hitz hurrenkera aztertzea. Ildo honetatik, argigarria izan liteke Helburu nahiz Iturburu balioa duten jabego datiboetan hobesten den hitz hurrenkera aztertzea, esate baterako *umea amari magalera joan zaio negarrez* gisako perpausetan. Honelakoetan, bi Helburu (*amari* eta *magalera*) oten dauden aztertu beharra dago.

Azkenik, uste dut hautaketa ariketez gain badirela lekuzko adposizioak aztertzeko bestelako baliabide esperimental interesgarriak. Esate baterako, ekoizpen esperimentuetako emaitzak aztertzea ala euskarazko corpusetako lekuzko adposizioen erabileraren analisi estatistiko bat egitea lagungarria litzateke adposizioak hobeki ezagutzeko. Honi dagokionez, Landau eta Lakustak (2005) eginiko esperimentua euskarara egokitzea izan daiteke gerora begira egin beharreko lanetako bat. Izan ere, esperimentu honetan, irudiak ikusi osteko ekoizpen deskribatzaileari erreparatu zaio, aditzaren Helburu (*bidali*) ala Iturburu (*jaso*) orientazioan eta adposizioen isilaratzean arreta berezia jarritz.

7. Ondorioak

Lan honetan zehar, lekuzko adposizioak eta bereiziki, euskarazko lekuzko adposizioak aztertu ditut hiru ildo nagusitan: Nanosintaxian, Sintaxian eta argumentu egituran, eta eremu esperimentalean. Lana hiru atal nagusitan egituratu dudanez, jarraian aurkezten ditudan ondorioek ere banaketa hau jarraitzen dute.

Batetik, leku adposizioek Nanosintaxian duten egituraketa sintaktikoa aztertzeko, nazioartean (Svenonius 2004, Pantcheva 2011) eta euskal esparruan (Etxepare 2013, Berro 2015) adposizioak sailkatzeko egin diren proposamenak aztertu ditut. Egile hauek zehazten dutenez, adposizioen gauzapean lexikoak hierarkia zehatz bati jarraitzen dio, eta hierarkia hau euskaraz aurkezteko, Pantchevak (2011) adposizioak buru sintaktiko ugaritan dekonposatzeko egiten duen proposamena hartzen dut oinarritzat. Izan ere, dekonposa daitezkeen buru sintaktikoen kopurua, hizkuntzak espazio harremanak adierazteko dituen ñabarduren araberakoa da.

Hierarkia honen oinarrian, oinarritzko hiru adposizioak ageri dira inesiboa (Lekua) > adlatiboa (Helburua) > ablatiboa (Jatorria), Etxeparek (2013) zehazten duen bezala. Zenbait kasutan, espazio harremana adierazten duten Ardatz Zatiak ager daitezke Leku buruaren azpian, izenarekin batera perpauseko Eremua osatzen. Hauxe gain, Berrok (2015) zehazten du EskalaS edozein Bide bururen gainean isla daitekeela. Honenbestez, adposizio direkzioanala (hurbiltze adlatiboa) hierarkia honetan aurkez daiteke euskaraz ere, Eskala burua lexikalizatzen duen *-(a)ntz* morfemak Helburu hautatzen duenean. Honi, MugaS gaineratzen diot, terminatiboaren (muga adlatiboa) *-ino* muga morfema ere Helburu buruaren gainean isla baitaiteke. Euskarazko ablatiboaren eta prosekutiboaren arteko oposaketa historikoa ere, Pantchevaren (2011) analisiarekin bateragarria dela aurkeztu dut, *-ti* morfemak Zehar burua lexikalizatzen duela proposatuz. Beraz, hau litzateke euskararako leku adposizioetarako proposatzen dudana hierarkia: Lekua > Helburua > Jatorria > Bidea > (Eskala).

Aipatutakoez gain, hipotesi honek euskarazko beste zenbait lekuzko egitura ere azal ditzakeela proposatu dut. Batetik, aldakortasun dialektala azaltzeko balio dezake; Mendebaldeko *-ra arte* egiturak, muga adlatiboaren balio bera baitu, *arte* Ardatz Zatiak *-ino* muga morfemaren balioa hartzen du eta. Honez gain, *non zehar* gisako prosekutiboek ere antzeko egoera erakusten dutela proposatu dut, *zehar* eta *barrena* bezalako Ardatz Zatiek Zehar burua lexikalizatzen baitute. Azkenik, lekuzko adposizio bizidunen sailean, [+BIZIDUN] balioa duen *-ga-* buruak, lexikalizatu ahal izateko inesiboaren beharra duela (*-ga-* + *-n*) proposatu dut. Biziduntasuna gauzatzea ahalbidetzen duen *-n* morfemaz gain, beste adposizioak ere lexikalizatu daitezke bakoitzari dagokion buru sintaktikoan (*-ga-* + *-n-* + *-a*).

Bigarren atalari dagokionez, lekuzko adposizioek Sintaxian duten izaera eta funtzioa aztertu ditut. Lehenik eta behin, gramatika deskribatzaileetan (Baker 2003, Huddleston eta Pullum 2002) adposizioei egozten zaien estatusa aztertu dut, egileek iritzi kontrajarriak dituztela ikusiz. Bakerrek (2003) adjuntutzat hartzen ditu lekuzko adposizioak eta Huddleston eta Pullumek (2002) aldiz, PS egituren artean argumentuak eta adjuntuak ageri direla zehazten dute. Azken hauen iritzi, mugimenduzko aditzek eta iragaite edo transferentzia aditzek beharrezkoa dute espazio harremanen inguruko oinarritzko informazioa zehaztea eta horretaz, PSak arduratzen dira.

Nik, neurri handi batean, bat egiten dut Huddleston eta Pullumek (2002) proposatutakoarekin, eta uste dut eztabaida hau euskarara ekartzeak garrantzia handia duela, orain arteko euskal gramatikan, aditz komunztadura izan baita argumentu eta adjuntuen arteko aurkakotasuna zehazteko erabili den irizpide nagusia. Ildo honetan, ergatibo, datibo eta absolutibo kasuez markatutako sintagma bako bako ez dira argumentutzat hartu eta PSak aztertzerakoan ez da aditzaren izaera aintzat hartu. Nire proposamenean, lekuzko adposizio sintagma batzuek, mugimenduzko aditz iragangaitzetakoek bereziki, argumentu estatusa dutela proposatu dut, hauek baitira aditzak hauta ditzakeen argumentu bakarrak. Perpaus iragangaitzetako beste PS batzuek, denbora balioa dutenek, esaterako, ez dute espazio harremani buruzko oinarritzko informaziorik argitzen, hortaz, adjuntu estatusa dutela ondorioztatu dut.

Beste alde batetik, perpaus iragankorrek egoera bertsua erakusten dutela proposatu dut. Baina kasu honetan, lekuzko adposizioak ez dira mugimendu aditzen ohiko osagarriak. Lan honetan, perpaus iragankorretako lekuzko adposizioak Aditz Sintagmaren espezifikatzaile gunean sortzen direla proposatu dut, osagarri zuzena eta zehar osagarria baino goragoko islapen batean. Bestetik, Helburuzko eta Iturburuzko adposizioen arteko asimetria ez dut adposizio hauen estatus sintaktikoan oinarritzen. Aitzitik, ez dut sorgune bana proposatu Helburuarentzat eta Iturburuarentzat, biak ala biak perpaus iragankorretan osagarri zuzenaz (absolutiboaz) eta zehar osoagarriaz (datiboaz) gain ageri diren argumentuak direla aurkeztu baitut. Hitz hurrenkeran ikusten den asimetriaren (Iturburu-Gaia vs. Gaia-Helburua) atzean, aditzak Helburua lehenesteko duen joera dagoela ondorioztatzen dut. Aditz buruak premia handiagoa du Helburua hurbilean adierazteko, eta aditzarekiko komunztadura adierazten duen DS osagarria egituran aurreratu daiteke.

Azkenik, atal esperimentalean ondorioztatu dudanez, Helburuzko adposizioak aditzaren aurrean adierazteko joera oso markatua dago, eta honekin bat egiten dute partaideen hatutuek. Bestetik, Iturburuzko adposizioek ez dituzte horren emaitza gardenak azaleratzen. Parte gehien hautatu duten hurrenkera Iturburu-Gaia hurrenkera (%52) bada ere, Gaia-Iturburu baldintza ere maiztasun handiarekin hautatu baitute (%48). Dena den, datuok erakusten dute Iturburu-Gaia hurrenkera lehenesteko joera nabarmena dagoela eta hortaz, bi adposizio hauetan nagusitzen den hitz hurrenkera ez dator bat. Bestetik, bi adposizioak batera aztertzean, Iturburu Helburuaren eraginpean

geratzen dela erakusten dute datuek, OZ-[ITUR-HELB] hurrenkerak erakusten baitu maiztasun altuena (%67,6). Amaitzeko, aipatu beharra dago hitz hurrenkeran topatutako asimetria Helburuzko adposizioak lehenesteko joera orokorrari egozten diodala, beste lan esperimental batzuetan egin den bezala.

Aipamenak

- Alexadiou, Artemis 1997. *Adverb Placement. A Case Study in Antisymmetric Syntax*. Linguistik Aktuell 18, Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- Agirre, Xabier. 2017. *Euskal adjektibozko adberbioak aztergai*. Gradu Amaierako Lana, UPV/EHU.
- Ariztimuño, Borja. 2014. The origin of the Basque partitive. In Silvia Luraghi & Tuomas Huumo (arg.), *Partitive Cases and Related Categories*. Berlin: Mouton de Gruyter. 323–344.
- Arregi, Eurídice & Javier Ormazabal. 2003. Aditz ditransitiboen barne-egitura. In Jesus Mari Makazaga & Beñat Oyharçabal (arg.), *Euskal gramatikari buruzko eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian. Gramatika gaiak*. Iker-14 (I). Bilbo: Euskaltzaindia. 119–136.
- Baker, Mark. 2003. *Lexical categories: verbs, nouns and adjectives*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Berro, Ane. 2015. Kokapen aditzak euskaraz. Adposizioen eta aditzen erdigunean. In Beatriz Fernández & Pello Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, Gorazarre. Homenatge, Homenaje*. Bilbo: UPV/EHU. 137–155.
- Deacon, Robert. 2014. Adpositions and Lexical Categories: Distributed Morphology's Insight into the Problem. *Proceedings of the Florida Linguistics Yearly Meeting (FLYM) 1*, University of Florida.
- Elordieta, Arantzazu. 2001. *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*. Utrecht: LOT.
- 2003. Moduzko adberbioak eta adberbioen arteko hurrenkeraz. In Jesus Mari Makazaga & Beñat Oyharçabal (arg.), *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian. Gramatika-Gaiak [Iker 14(1)]*. Baiona: Euskaltzaindia–IKER. 207–231.
- Etxepare, Ricardo & Beñat Oihartzabal. 2012. Datives and adpositions in north-eastern Basque. In Beatriz Fernández & Ricardo Etxepare (arg.), *Variation in datives: a microcomparative Perspective*. Oxford: Oxford University Press. 50–95.
- Etxepare, Ricardo. 2013. Basque primary adpositions from a clausal perspective. *Catalan Journal of Linguistics* 12, 41–82.

- Euskaltzaindia. 1991. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I (EGLU-I)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Fernández, Beatriz & Jon Ortiz de Urbina. 2010. Iragankor datibodunak. In Beatriz Fernández & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *Datiboa hiztegian*. Bilbao: UPV/EHU Press. 173–198.
- Fernández, Cecilia. 2021. *Nora joan ote dira adberbio guztiak?* Gradu Amaierako Lana, UPV/EHU.
- Gehrke, Berit. 2007. Goals and sources in event structure. In Bettelou Los & Marjo van Koppen (arg.), *Linguistics in the Netherlands* 24, 86–98.
- Hualde, José Ignacio. 2003a. Case and number inflection of noun phrases. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 171–186.
- 2003b. Postpositions. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 187–190.
- Huddleston, Rodney & Geoffrey K. Pullum. 2002. Prepositions and preposition phrases. In Rodney Huddleston & Geoffrey K. Pullum (arg.), *The Cambridge grammar of the English language*. Cambridge: Cambridge University Press. 597–661.
- Ibarretxe-Antuñano, Iraide. 2004. Polysemy in Basque locational cases. *Belgian Journal of Linguistics* 18 (1): 271–298.
- Jackendoff, R. 1983. *Semantics and Cognition*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Koopman, Hilda. 2000. Prepositions, postpositions, circumpositions and particles: The structure of Dutch PPs. In Hilda Koopman (arg.), *The syntax of specifiers and heads*. London: Routledge. 204–260.
- Lafitte, Pierre. 1944. *Grammaire basque: navarro-labourdin littéraire*. Baiona: Librairie “Le Livre”.
- Landau, Barbara. 2010. Paths in language and cognition: Universal asymmetries and their cause. In Giovanna Marotta, et al. (arg.), *Space in language. Proceedings of the Pisa International Conference*. Pisa: Edizioni ETS. 73–94.
- Lakusta, Laura & Barbara Landau. 2005. Starting at the end: The importance of goals in spatial language. *Cognition* 96, 1–33.
- Libert, Alan. 2006. *Ambipositions*. Muenchen: Lincom GmbH.
- Libert, Alan Reed. 2008. English ambipositions. In Katarina Rasulić & Ivana Milošević (arg.), *ELLSSAC Proceedings (International Conference English Language and Literature Studies: Structures across Cultures)*. vol. I. Belgrado: University of Belgrade. 140–153.

- Mounole, Céline & Joseba A. Lakarra. 2018. Lekukotasunen azterketa. In Joaquín Gorrochategui, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritz. 410–455.
- Nam, Seungho. 2004. Goal and Source: Asymmetry in their Syntax and Semantics. Ms. Seoul National University.
- Oyharçabal, Bernard. 2007. *Basque Ditransitives*. Eskuizkribua, IKER, CNRS.
- Ormazabal, Javier eta Juan Romero. moldiztegia. In the beginning was a *to*-phrase. Eskuizkribua, UPV/EHU, HiTT, Univ. of Extremadura. *Linguistic Inquiry*.
- Pantcheva, Marina. 2011. *Decomposing Path. The Nanosyntax of Directional Expressions*. doktore-tesia, University of Trømsø.
- Pylkkänen, Liina. 2008. *Introducing arguments*. Cambridge/London. The MIT Press.
- Rijk, Rudolf de. 1990. Locational nouns in Standard Basque. *ASJU* 24: 3–20.
- 2008. *Standard Basque. A comprehensive grammar*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Romeu, Juan. 2014. *Cartografía mínima de las construcciones espaciales*. doktore tesia, Universidad Complutense de Madrid.
- Santazilia, Ekaitz. 2013. Noun morphology. In Mikel Martínez Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque: Language-Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction*. [Mikroglottika 5]. Peter Lang. 223–281.
- Svenonius, Peter. 2004. Adpositions, particles, and the arguments they introduce. In Tanmoy Bhattacharya, Eric Reuland & Giorgios Spathas (arg.), *Argument Structure*. Amsterdam: John Benjamins. 71–110.
- 2007a. *Interpretations of PP*. eskuorriak. LSA Summer Institute, Stanford.
- 2007b. *Projections of P*. eskuizkribua. CASTL, University of Tromsø.
- Talmy, Leonard. 2000. *Toward a cognitive semantics*. vol I. Cambridge (MA): MIT Press.
- Vietri, Simonetta. 2020. The Lexicon of Transitive Verbs of Motion and the asymmetry between Goal and Source PPs. *International Journal of Linguistics* 12 (6): 81–115.
- Villasante, Luis. 1978. *Estudios de sintáxis vasca*. Oñati: Euskaltzaindia eta Arantzazu.
- Zwarts, Joost. 2005. Prepositional Aspect and the Algebra of Paths. *Linguistics and Philosophy* 28 (6), 739–779.

I Eranskina: Esperimentuan erabilitako materialak

I atala:

a) Hautatu beharreko perpaus iragankor bikoteak

❖ Helburu adposiziodun perpausak

1. A) Jonek ogia etxera darama.
B) Jonek etxera ogia darama.
2. A) Amaiak gutuna postontzira bota du.
B) Amaiak postontzira gutuna bota du
3. A) Norak lanera Josu darama.
B) Norak Josu lanera darama.
4. A) Arrantzaleak uretara arrain txikiak itzuli ditu.
B) Arrantzaleak arrain txikiak uretara itzuli ditu.

❖ Iturburu adposiziodun perpausak

5. A) Kepak dendatik ogia ekarri du.
B) Kepak ogia dendatik ekarri du.
6. A) Nahiak eskolatik Jone jaso du.
B) Nahiak Jone eskolatik jaso du.
7. A) Peruk kanika gorriak poltsikotik atera ditu.
B) Peruk poltsikotik kanika gorriak atera ditu.
8. A) Alkateak suziria udaletxetik jaurti du.
B) Alkateak udaletxetik suziria jaurti du.

b) Filler gisa erabilitako perpausak (I)

❖ Iturburu eta Helburu adposiziodun perpaus iragangaitzak

9. A) Mikel eskolatik etxera doa.
B) Mikel etxera eskolatik doa.
10. A) Libe kaletik etxera dator
B) Libe dator kaletik etxera.
11. A) Tren hau joango da Tolosara Donostiatik.
B) Tren hau Donostiatik Tolosara joango da.
12. A) Hegazkina Loiutik abiatu da Italiara.
B) Hegazkina Loiutik Italiara abiatu da.

❖ Adposiziorik gabeko perpaus ditrantsitiboak

13. A) Aitak alabari giltzak itzuli dizkio.
B) Aitak giltzak alabari itzuli dizkio.
14. A) Maitek amari barazkiak ekarri dizkio.

- B) Maitek barazkiak ekarri dizkio amari.
15. A) Jokalariak atezainari jaurti dio baloia.
B) Jokalariak atezainari baloia jaurti dio.
16. A) Anek bidali dio gutuna ahizpari.
B) Anek ahizpari gutuna bidali dio.

II atala:

a) Hautatu beharreko perpaus iragankor bikoteak

❖ Iturburu eta Helburu adposiziodun perpaus iragankorrak

17. A) Itsasontziak kafea Kolonbiatik Europara eramango du.
B) Itsasontziak Kolonbiatik Europara kafea eramango du.
18. A) Gorkak azokatik jatetxera opila dakar.
B) Gorkak opila azokatik jatetxera dakar.
19. A) Arraunlariak trainerua lehorretik uretara daramate.
B) Arraunlariak lehorretik uretara trainerua daramate.
20. A) Norak tailerretik etxera autoa dakar.
B) Norak autoa tailerretik etxera dakar.


b) Filler gisa erabilitako perpausak (II)

❖ Denborazko PS egituradun perpaus ditransitiboak


21. A) Peruk eguerdian Nahiari egunkaria eraman dio.
B) Peruk Nahiari egunkaria eguerdian eman dio.
22. A) Ikerrek txoriei ogia bota die goizean.
B) Ikerrek goizean txoriei ogia bota die.
23. A) Hurrek arratsaldean gurasoei mantalak eman dizkiete.
B) Hurrek arratsaldean mantalak gurasoei eman dizkiete.
24. A) Olentzerok gauean ikatza ekarri dio Koldori.
B) Olentzerok gauean Koldori ikatza ekarri dio.

II Eranskina: Esperimentuko datu estatistikoak


1. taula: parte hartzaileen adinaren diagrama kutxa




2. taula: erantzun denboren diagrama kutxa




3. taula: Helburuaren eta DS osagarriaren arteko hitz hurrenkera hautuak



4. taula: Iturburuaren eta DS osagarriaren arteko hitz hurrenkera hautuak



5. taula: [Iturburu-Helburu] eta DS osagarri arteko hitz hurrenkera hautuak



6. taula: Parte hartzaileek hautatutako hitz hurrenkeren T-testa

T-Testa: parte hartzaileek hautatutako hitz hurrenkerak

Binakaturako laginen T-Testa

Measure 1		Measure 2	t	df	p
O-Helb	-	Helb-O	15.953	27	< .001
Itur-O	-	O-itur	0.542	27	0.592
Helb-O	-	Itur-O	-8.705	27	< .001
O-Helb	-	Itur-O	6.852	27	< .001